SOZIOLOGIA

Olatz TIRAPU ARDAIZ

ERRONKA BERRIAK HAUR-HEZKUNTZAN: FAMILIEN PARTE-HARTZEAREN ERAGINA GARAPEN PSIKOLOGIKOAN/ NUEVOS RETOS EN EDUCACION-INFANTIL: INFLUENCIA FAMILIAR Y DESARROLLO PSICOLOGICO

TFG/*GBL* 2013

upna
Universidad Pública de Navarra
Nafarroako Unibertsitate Publikoa
Facultad de Ciencias Humanas y Sociales
Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea

Haur Hezkuntzako Irakasleen Gradua

Haur Hezkuntzako Irakasleen Gradua

Grado en Maestro en Educación Infantil

Gradu Bukaerako Lana
Trabajo Fin de Grado

ERRONKA BERRIAK HAUR- HEZKUNZTAN: FAMILIEN PARTE-HARTZEAREN ERAGINA GARAPEN PSIKOLOGIKOAN/ NUEVOS RETOS EN EDUCACION- INFANTIL: INFLUENCIA FAMILIAR Y DESARROLLO PSICOLOGICO

Olatz TIRAPU ARDAIZ

GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIEN FAKULTATEA
FACULTAD DE CIENCIAS HUMANAS Y SOCIALES

NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOA
UNIVERSIDAD PÚBLICA DE NAVARRA

Ikaslea / Estudiante
Olatz TIRAPU ARDAIZ

Izenburua / Título
Erronka berriak Haur- hezkuntzan: familien parte-hartzearen eragina garapen psikologikoan / Nuevos retos en Educación- infantil: influencia familiar y desarrollo psicológico

Gradu / Grado
Haur Hezkuntzako Irakasleen Gradua / Grado en Maestro en Educación Infantil

Ikastegia / Centro
Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea / Facultad de Ciencias Humanas y Sociales
Nafarroako Unibertsitate Publikoa / Universidad Pública de Navarra

Zuzendaria / Director-a
Olatz MUÑOZ ARRIETA

Saila / Departamento
Soziologia/ Sociología

Ikasturte akademikoa / Curso académico
2012/2013

Seihilekoa / Semestre
Udaberria / Primavera

Hitzaurrea

2007ko urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretua, 2010eko 861/2010 Errege Dekretuak aldatuak, Gradu ikasketa ofizialei buruzko bere III. kapituluan hau ezartzen du: “ikasketa horien bukaeran, ikasleek Gradu Amaierako Lan bat egin eta defendatu behar dute […] Gradu Amaierako Lanak 6 eta 30 kreditu artean edukiko ditu, ikasketa planaren amaieran egin behar da, eta tituluarekin lotutako gaitasunak eskuratu eta ebaluatu behar ditu”.

Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Haur Hezkuntzako Irakaslearen Graduak, ANECAk egiaztatutako tituluaren txostenaren arabera, 12 ECTSko edukia dauka. Abenduaren 27ko ECI/3854/2007 Aginduak, Haur Hezkuntzako irakasle lanetan aritzeko gaitzen duten unibertsitateko titulu ofizialak egiaztatzeko baldintzak ezartzen dituenak arautzen du titulu hau; era subsidiarioan, Unibertsitatearen Gobernu Kontseiluak, 2013ko martxoaren 12ko bileran onetsitako Gradu Amaierako Lanen arautegia aplikatzen da.

ECI/3854/2007 Aginduaren arabera, Haur Hezkuntzako Irakaslearen ikasketa-plan guztiak hiru modulutan egituratzen dira: lehena, oinarrizko prestakuntzaz arduratzen da, eduki sozio-psiko-pedagokikoak garatzeko; bigarrena, didaktikoa eta dizplinakoa da, eta diziplinen didaktika biltzen du; azkenik, Practicum daukagu, zeinean graduko ikasleek eskola praktiketan lortu behar dituzten gaitasunak deskribatzen baitira. Azken modulu honetan dago Gradu Amaierako Lana, irakaskuntza guztien bidez lortutako gaitasun guztiak islatu behar dituena. Azkenik, ECI/3854/2007 Aginduak ez duenez zehazten gradua lortzeko beharrezkoak diren 240 ECTSak nola banatu behar diren, unibertsitateek ahalmena daukate kreditu kopuru bat zehazteko, aukerako irakasgaiak ezarriz, gehienetan.

Beraz, ECI/3854/2007 Agindua betez, beharrezkoa da ikasleak, Gradu Amaierako Lanean, erakus dezan gaitasunak dituela hiru moduluetan, hots, oinarrizko prestakuntzan, didaktikan eta diziplinan, eta Practicumean, horiek eskatzen baitira Haur Hezkuntzako Irakasle aritzeko gaitzen duten unibertsitateko titulu ofizial guztietan.

Lan honetan, oinarrizko prestakuntzako moduluak familiaren eta haur hezkuntzako irakaslearen arteko harreman eta elkarlana lantzeko bidea eman du. Horretarako, oinarri psikologikoak eta hezkuntza erakundeak ikasgaietan landutako zenbait gai erabili ditut. Hauen bidez, nire lanaren hasierako teoriaren alor batzuk osatzea lortu dut.

Didaktika eta diziplinako moduluetako batean ikasitako lan metodologia erabili dut nire lanean, jorratu dudan gaiarekin zerikusia duela uste dudalako eta planteatzen dudanarekin lotura duela pentsatzen dudalako. Plastikaren didaktika ikasgaian, proiektuen bidezko lana nola egiten den ikusi ahal izan genuen eta horri esker nire lanean haurrekin gela barruan lan egiteko metodo bezala azaldu dut.

Halaber, Practicum modulua, alde batetik lanaren garapenean islatuta azaltzen da, proiektuen bidezko lana nola egiten den ikusi ahal izan dudalako eta izan dudan esperientziari esker horren inguruko azalpena egin ahal izan dudalako. Beste aldetik, lanean egin dudan atal praktikoan, nire praktika-aldian ikusi dudanari esker ondorio ezberdinak ateratzeko aukera izan dut.

Beste alde batetik, ECI/3854/2007 Aginduak ezartzen du, Gradua amaitzerako, ikasleek gaztelaniazko C1 maila eskuratuta behar dutela. Horregatik, hizkuntza gaitasun hau erakusteko, hizkuntza honetan idatziko dira aurrekariak eta helburuak, eta “BBBBBBB” atalak (idatzi lanaren tituluak), baita hurrengo atalean aipatzen den laburpen derrigorrezkoa ere.

Laburpena

Lan honetan, gaur egungo gizartean haurrek jasotzen duten hezkuntzak duen garrantzia aztertu dut. Txikiek jasotzen duten hezkuntza horretan bi instituzio garrantzitsuak hartzen dute bereziki parte: familia eta eskola. Bi instituzio hauen elkarlana beharrezkoa da haurren garapen, ikaskuntza eta sozializazioa eman dadin. Horretarako, familiaren inplikazioa eta parte-hartzea eskola eremuan eta bereziki seme- alaben ikasgelaren barruan, oso garrantzitsua eta lagungarria izango da. Irakasleak betetzen duen paperak ere eragin handia dauka gurasoen aldetik eman daitekeen inplikazio eta parte-hartzean, honen lan egiteko moduak gehiago edo gutxiago ahalbidetuko duelako. Haur hezkuntzan lan egiteko teoria pedagogiko ezberdinak aurki daitezke, hala nola, Loris Malaguzzi, Maria Montesori eta Rudolf Steinerrenak. Hauek, gurasoen eta eskolaren elkarlana ahalbidetzen dute. Irakasleak teoria horiek jarraituz eta proiektuen metodoaren bidez lan eginez haurren, gurasoen eta irakaslearen artean harremana sendotu eta guztion parte-hartzea eta inplikazioa ematen da. Gai hauen inguruan, Iruñeko ikastetxe bateko 3 urteko haurren gurasoen eta irakasleen iritziak zeintzuk diren jakin nahi izan dut.

Hitz gakoak: familia; inplikazioa; parte-hartzea; elkarlana; eskola.

Resumen

Mediante este trabajo he analizado la importancia que tiene la educación que los niños reciben hoy en día. En la educación que reciben los pequeños y las pequeñas participan dos importantes instituciones: la familia y la escuela. El trabajo común de estas dos instituciones es necesario para ayudar al desarrollo, aprendizaje y socialización de los niños y las niñas. Para ello, la implicación y participación de la familia en el ámbito escolar y en especial en el aula de los hijos y las hijas, es de gran importancia y ayuda. El papel que cumple el profesor o la profesora, también influye mucho, ya que la manera de trabajar de este o esta facilitara más o menos la implicación y la participación. En educación infantil encontramos diferentes teorías pedagógicas que podemos emplear a la hora de trabajar como las de Loris Malaguzzi,

Maria Montessori y Rudolf Steiner. Estas, facilitan el trabajo común entre la familia y la escuela. El profesor o la profesora siguiendo esas teorías y trabajando por proyectos, ayuda a fortalecer la relación entre alumnos, padres, madres y educadores y a que se dé una mayor implicación y participación por parte de todos. En este trabajo, he querido saber la opinión que tienen sobre estos temas los profesores y las profesoras y los padres y las madres de niños y niñas de 3 años de una escuela de Pamplona.

Palabras clave: familia; implicación; participación; trabajo colectivo; escuela.

Abstract

In this work, I have analysed the importance of education in children today. In education children receive are involved two important institutions: school and family. Common work between these two institutions is necessary to assist the development, learning and socialization of children. Because of that, the involvement and participation of the family is important and helpful in the classroom. The methodology used by the teacher will have a big influence in the involvement and participation of parents. In infant education we can used different pedagogical theories, for example the methods of Loris Malaguzzi, Maria Montessori and Rudolf Steiner. This way the work between the family and school is easier. Based on these theories and in work by projects, the relationship between parents, students and the teacher will be stronger. That is going to help in involvement and participation. In this work I wanted to know different opinion about these subjects of parents and teachers from a school in Pamplona.

Keywords: family; school; implication; participation; collective work.

Aurkibidea

Sarrera	1
1. Aurrekariak eta helburuak/ Antecedentes y objetivos	3
2. Marko teorikoa	7
2.1. Zer da familia	7
2.2. Aldaketa soziologikoak eta familia	8
2.3. Familia ereduak	10
2.3.1. Familia nuklear funtzionala	11
2.3.2. Familia hedatu edo konplexua	12
2.3.3. Guraso bakarreko familiak	12
2.3.4. Familia berreraikiak	12
2.3.5. Adopzio familiarrak	13
2.3.6. Harrera familiak	14
2.3.7. Sexu bereko pertsonez osatutako familia homoparentalak	15
2.3.8. Ugalketa lagunduaren bidez jaiotako umeen familiak	16
2.3.9. Subrogazioaren bidez sortutako familiak	16
2.3.10. Etorkinen familia aniztasuna	17
2.3.11. Izatezko bikoteak	17
2.3.12. Pertsona bakarreko guneak	17
2.3.13. Seme- alabarik gabeko guneak	18
2.4. Gizonaren papera gizarte garaikidean	18
2.5. Haur hezkuntzako didaktika	19
2.5.1. Haur hezkuntzako metodologia eta familiaren inplikazioa	21
2.6. Haurraren garapena Haur Hezkuntzan	25
2.6.1. Nortasuna	25
2.6.2. Autoestimua	31
2.6.3. Adierazpen emozionala	32
2.6.4. Garapen soziala	34
2.6.5. Mintzairaren garapena	35
2.6.5.1. Garapen fonologikoa	35
2.6.5.2. Berbategia eta gramatikaren garapena	36
3. Garapena eta gurasoen parte-hartzea eskolan	39
3.1. Eskolan haur hezkuntzan proiektuen bidez lan egitea eta gurasoen parte-hartzea	39
3.1.1. Gai orokorren inguruko proiektuak	41
3.1.2. Proiektu pertsonalak	42
3.2. Hezkuntzaren estiloak familiaren arabera eta hauen inplikazioa	45
3.2.1. Estilo demokratikoa	46
3.2.2. Estilo autoritarioa	46
3.2.3. Estilo permisiboa	47
3.2.4. Estilo indiferentea	47
3.3. Gurasoak eta inplikazioa	49
3.4. Eskola eta familiaren arteko harremanak	53
4. Atal praktikoa / Apartado teórico	57
4.1. Metodología del estudio cuantitativo	57

4.2. Descripción y análisis de resultados	58
4.3. Descripción y análisis de resultados	64
4.4. Comparación de resultados	68
5. Ondorioak /Conclusiones	71
6. Erreferentziak	75
7. Eranskinak	77
Eranskina I	77
Eranskina II	81

SARRERA

Familia eta eskola, haurren hezkuntzan elkarrekin lan egin behar duten bi instituzio dira. Lan honen bidez, aipatutako bi instituzio hauen artean ematen den harremana ikusi eta aztertu nahi dugu. Gurasoek beraien seme- alaben geletan duten inplikazioa eta parte hartzea ematen den ikustea. Gizonak gaur egungo gizartean izan dituen aldaketak eta horrek zerk eragin dituen ezagutzea ere interesgarria ikusi dugu.

Helburu horiek lortzeko, zenbait gaien azterketa teorikoa egingo dugu. Alde batetik, familia zer den ikusi nahi dugu. Honen inguruan definizio asko eman dira urtetan zehar, beraz, gaur egungo gizartearekin bat datozena edo hobekien azaltzen duena aukeratuko dugu. Horrekin batera, familiak urteetan gizartean izan dituen aldaketak eta sortu diren familia mota ezberdinak aztertuko ditugu. Gizonak azken urteetan aldaketa nabariak jasan behar izan ditu, beraz, aldaketa horiek eta horien arrazoiak zeintzuk izan diren azaltzen saiatuko gara. Eskolaren paperak, esan bezala, paper garrantzitsua du gurasoen inplikazio eta parte- hartzea eragiteko momentuan, baina bereziki gela barruan irakasleak lan egiteko moduak lagunduko du aipatutako inplikazio eta parte- hartzean. Lan egiteko modu horren garrantzia adierazteko, Loris Malaguzzi, Maria Montessori eta Rudolf Steiner adituek proposatutako metodoak azalduko ditugu. Honetan guztian haurren izaerak ere eragina izan dezake gurasoen presentzian. Horregatik, haurrengan ematen diren garapen ezberdinak azalduko ditugu.

Atal teoriko hori ikusi ondoren, gurasoek eskolan duten parte- hartzea eta inplikazioa zeren araberakoa izan daitekeen azalduko dugu. Haurren gela barruan gurasoen interbentzioa emateko, irakasleak lan metodo egokiak erabili behar dituela uste dugu eta horregatik proiektuen bidezko lana nola ematen den azalduko dugu. Hauen bidez gurasoen parte- hartze eta inplikazioa bultzatzen denaren ustea dugu. Gurasoek haurrak hezteko aurrera eraman ditzaketen estilo desberdinak aztertuko ditugu eta horien inguruko balorapen txikia egingo dugu, horiek gurasoen parte-hartze eta inplikazioan duten eragina azaltzen saiatuz. Horrekin guztiarekin, eskola eta familiaren arteko harremanak gaur egun nolakoak diren aipatuko ditugu.

Gero, lan honen atal praktikoari emango diogu hasiera. 3 urteko haurren gurasoen eta haur hezkuntzako irakasleen iritziak jakiteko, Iruñeko ikastola publiko batean inkesta batzuk egin ditugu eta horietatik ateratako datuak aztertu ditugu. Alde batetik gurasoen erantzunak aztertu ditugu eta bestetik, irakasleek emandakoak. Ondoren, bien arteko konparaketa txikia egin dugu, kointzidentziak eta ezberdintasunak ikusi ahal izateko.

Azkenik, lan honetan guztiak jasotako informazioa aztertuta, atera ditugun ondorioak azaldu ditugu.

1. AURREKARIAK ETA HELBURUAH/ ANTECEDENTES Y OBJETIVOS

Antecedentes

Vivimos en un mundo en el que constantemente se dan cambios sociales. En cuestión de pocas décadas el estilo de vida de las personas, los roles asignados a hombres y mujeres, la participación social y las metodologías educativas han sufrido importantes cambios.

Estos cambios han tenido una clara repercusión en la institución social más importante y esencial desde que nacemos: la familia. Esta institución es la primera de la que formamos parte y la que mayor relevancia tiene a la hora de aprender a relacionarnos con otras personas y en la manera en la que empezamos a ver el mundo. De ella recibimos los primeros conocimientos y las herramientas de comunicación que utilizaremos a lo largo de nuestra vida.

Siendo consciente de la importancia de esta institución básica, me pregunto cómo de complejo y extenso será el concepto de la familia y con qué distintos tipos de familia me encontrare. Imagino que hoy en día los cambios que está teniendo esta sociedad afectaran directamente a los ya mencionados tipos de familia, puesto que nos encontraremos con numerosos cambios en comparación con la familia tradicional que hemos conocido siempre. Pienso que los roles dentro de las diferentes familias también han sufrido alteraciones, por lo que adaptarse a nuevas situaciones habrá costado bastante a muchas personas.

Al ir creciendo, nos vamos encontrando con distintas instituciones de las que iremos formando parte. Ente ellas, la escuela será la que a la vez que la familia, marcara nuestras señas de identidad y condicionara la manera de entender el mundo.

La relación entre estas dos instituciones es fundamental. Ambas tienen objetivos en común, como son educar a los niños teniendo en cuenta y respetando sus posibilidades; ayudarlos ante cualquier problema que les pueda surgir ya sea físico, mental o personal; intentar que se integren en la sociedad de hoy en día siendo respetados y sabiendo respetar a los demás; etcétera. Por todo ello, el trabajo y la relación conjunta de estas dos instituciones debe ser estrecha y continúa. En mi opinión, deben ayudarse e informarse mutuamente para poder ayudar en el

aprendizaje y desarrollo le los niños y las niñas. Creo que estos deben saber que tanto sus familias como sus educadores están en continuo contacto para que se den cuenta de la unión que hay entre ellos. Los niños y las niñas no deben pensar que estas instituciones funcionan por separado y que no tienen nada que ver entre ellas. Con todo esto, me pregunto si los padres y las madres de los niños ven necesaria esta relación escuela- familia y si creen que influye en los niños que dicha relación se dé o no.

Objetivos

Así me planteo: ¿Hasta qué punto toman parte dentro del aula los padres y las madres?¿Tiene que ver la educación que reciben los niños y las niñas en casa a la hora de la implicación de los padres y las madres dentro del aula de sus hijos e hijas?

Mi estudio se va a centrar en el análisis de la participación e implicación de la familia en la escuela y la relación que deben mantener estas dos instituciones adaptándose a las necesidades de la sociedad actual. Me basaré en el punto de vista de los padres, madres y profesorado de educación infantil de un centro concreto. Este centro, es en el que he realizado mis prácticas en este último año, una escuela pública de modelo lingüístico D, situado en un barrio de Pamplona. *

He decidido analizar la participación e implicación de las familias del primer curso del segundo ciclo de educación infantil. He elegido este curso ya que los padres y madres empiezan a implicarse en la escuela con el primer contacto de sus hijos e hijas en esta institución, a no ser que al tener hijos o hijas mayores ya hayan comenzado dicha implicación.

Por lo que he podido observar a lo largo de las prácticas, creo que sí hay implicación por parte de las familias ya que las profesoras hacen un gran esfuerzo realizando y proponiendo proyectos participativos para los padres y las madres. La respuesta de estos proyectos ha sido muy positiva y han valorado la experiencia como divertida, motivante y muy satisfactoria.

* He decidido mantener el anonimato del centro escolar

Me surgen dudas acerca de si serán los padres o las madres las que tengan mayor participación. Aunque imagino que desde que la mujer dejó de trabajar en casa encargándose del mantenimiento y limpieza de esta y de la educación de sus hijos e hijas para formar parte del mundo laboral remunerado, la participación e implicación de ambos será equitativa.

Por una parte fundamentare mis conocimientos mediante un estudio teórico de los temas relacionados con esta materia, para poder así conocer los distintos modelos familiares que se han dado a lo largo de la historia; cómo han cambiado los roles de los hombres dentro de la familia y las razones de estos cambios; que evolución ha tenido esta institución en los últimos años; las diferentes características que pueden llegar a tener los niños y las niñas de hoy en día y cómo evolucionan; y distintos métodos que se pueden aplicar en la escuela a la hora de educar a los niños.

Por otro lado, mediante un pequeño estudio empírico con una muestra significativa de familias con niños y niñas de entre 3 y 4 años comprobaré el estado actual de la implicación familiar. Analizaré las respuestas que los padres y las madres den a unas preguntas concretas para así saber su opinión sobre el tema que se está tratando.

2. MARKO TEORIKOA

2.1. Zer da familia

Gaur egungo familien inguruan hitz egitea ez da erraza. Egia da gure eguneroko errealitatearen parte oso garrantzitsua dela eta horrek gai honen inguruan hitz egiteko erraztasuna emango digula uste ahal dugula. Baina familia oso izaera konplexua eta anitza duen kontzeptua da. Horren ondorioz, familiaren kontzeptua definitzeko modu desberdin asko aurki daitezke. Hona hemen Familia eta giza garapena liburuan Rodrigo eta Palacios-ek emandako definizioa:

> *«(…) gure ustez hau izango litzateke kontzeptuaren muina: pertsona elkartea. Hain zuzen pertsona horiek elkarrekiko bizitza proiektu iraunkorra izatea nahi dute; kidetasun-sentimendu sendoak sortzen dira eta kideen arteko konpromiso pertsonala dago eta, intimitate, elkarrekikotasun eta menpekotasun harreman estuak sortzen dira» (Rodrigo eta Palacios, 2001)*

Lehen aipatu bezala, definizio honetan ikusten dugun familiaren kontzeptua zabala eta anitza da, honen eraikuntza eman dadin faktore ezberdinek eragina dutelako eta gero eta aldaketa gehiago ematen ari direlako. Ezkontza ez da familia eraikitzeko bide bakarra, bereizketak eta beste familia berriak eratzea, bi guraso edo guraso bakarreko familiak osatzea, eta abar, gero eta gehiago gertatzen baita gaur egun. Gainera, seme-alaben kopurua ere jaisten ari da, lehen familietan izaten ziren seme-alaba kopuruarekin konparatuz eta horiek izateko bide ezberdinak erabiltzen ari dira: adopzioa, laguntza bidezko ugalketa, eta abar. Familia etengabeko aldaketan dagoen sistema bat da, non kideak behar eta baldintzen arabera eboluzionatzen joaten dira.

Familiak bere testuinguruan eginkizun batzuk betetzen ditu. Torio (2003) adituaren arabera, honako hauek dira familia batean bete behar diren eginkizun garrantzitsuenak: zainketa eguneroko bizitzan; eginkizun afektibo eta emozionala; hezkuntza funtzionala; sozializatzeko funtzioa; babespen funtzioa; sexu eta ugalketa funtzioak; aisialdi funtzioa; eta erlijio funtzioa. Semen- alabak dituzten familietan, badaude garrantzia berezia duten bi funtzio: superbizipena ziurtatzea; eta garapenerako egokia den testuinguru emozional eta afektiboa ematea. Bi funtzio

horiek elkarren artean erlazionatuta daude eta guraso eta seme- alaben arteko lotura afektiboa dute komunean.

2.2. Aldaketa soziologikoak eta familia

Lucía Aguado Iribarren irakasleak *Familia ereduak gaurko eskolan* dokumentuan azaltzen duen bezala, azken hamarkadetan Espainian eman diren aldaketa sozialek gaur egungo familien ezaugarrietan aldaketak ematea eragin dute. Alberdik (1999) esaten duen bezala, gaur egungo familiaren askatasunak eta ongizateak, lehenagoko familiaren biziraupena eta zentzua ordezkatu dituzte.

Urte hauetan eman diren aldaketa nagusien artean, honako hauek dira azpimarragarrienak:

1. Familiaren izaera asko aldatu da azken urteetan, hauetan ematen den aniztasunarengatik eta hauek dituzten ezaugarri ezberdinengatik. Gaur egungo gizartearen bizi itxaropen altuak, jaiotza tasak izan duen jaitsierak duela hamarkada batzuekin konparatuz eta seme-alabak izateko adinaren atzerapenak izan dira aldaketa horiek emateko arrazoi batzuk. Gero eta familia gehiago daude, baina aurrekoekin alderatuz, kopuru aldetik txikiagoak izaten dira. Azken hamarkadan gehien zabaldu den familia mota guraso bakarrarena izan da eta familia ugarien kopuruak berriz, jaitsiera nabarmena izan du. Hona hemen Espainiako *Instituto de Política Familiar* (2008) erakundeak 2007ko familia garapenaren inguruko txostenean egindako grafikoa:



Iturria: Instituto de Política Familiar

2. Gizartean normalizatuak zeuden balore jakin batzuenganako aldaketak eman dira, adibidez, patriarkatua, emakumeen mendekotasuna, gizonaren autoritatea eta abar. Aldaketa horiek pixkanaka-pixkanaka, askatasuna, autonomia eta negoziazioari bidea utzi diote. Emakumeen paperaren aldaketak ere eragin handia izan du. Hauen lana etxetik kanpora atera da eta etxeko lanen eta seme-alaben ardura bi gurasoen artean gero eta gehiago banatzen ari da. Hala ere, onartu beharra dago aldaketa hori mantsoa izaten ari dela.

3. Bikote harremanen kontzeptuak ere aldaketa nabarmenak izan ditu. Konpromiso emozionala eta malgutasuna gaur egungo harremanetan oso garrantzitsuak dira, eta hauetan eman daitezkeen beste kanpo faktore batzuk alde batera uzten dira. Azken hogeita bost urteetan eman diren ezkontza kopuruak beherakada handia izan du. Horren arrazoia da gero eta bikote gehiago bizi direla elkarrekin ezkondu gabe eta egoera hori ez dagoela gaizki ikusita gizartean. Horretaz gain, sexu berekoen arteko harremanak gero eta gehiago onartzen dira, nahiz eta hauen arteko

ezkontza duela urte gutxi batzuk legalki onartu den. Gainera, azken urteetan gauzatu diren dibortzio eta familia hausturen kopuruak nabarmenki gora egin du. Beraz, esan daiteke gaur egungo bikoteen arteko harremanak denbora luzean zehar irautea zailagoa dela, baina atseginagoak ere badirela. Hona hemen 1981.urtetik 2006.urtera arte Espainian erregistratu ziren dibortzio, bereizketa eta familia arteko haustura kopurua:



Iturria: Instituto de Política Familiar

2.3. Familia ereduak

Lehen azaldu bezala, azken urteotan gizartean aldaketa anitzak egon dira. Horrela, gaur egun gure inguruan ezagutzen ditugun familia eredu ezberdinak askotarikoak dira eta ez dute zer ikusirik orain arte ezagutu dugun familia tradizionalarekin. Hemen familia eredu ezberdinen sailkapen posible bat azalduko dut, Lucía Aguado Iribarren irakasleak *Familia ereduak gaurko eskolan* dokumentuan egiten duen sailkapena jarraituz. Hemen azalduko diren familia eredu ezberdinak elkarren arteko ezaugarri antzekoak izan ditzakete eta eredu horietako bateko ezaugarriak beste eredu bateko ezaugarriekin elkartu daitezke. Adibidez, guraso bakarreko familia adopzioa edo dibortzio bidez sortu

daiteke. Hona hemen gure eguneroko bizitzan aurki ditzakegun familia eredu ezberdinen sailkapen posible bat:

2.3.1. Familia nuklear funtzionala

Familia nuklearrak esan nahi du "*la concentración de la familia en el grupo esposo-esposa-hijos menores de edad, formando todas un grupo primario*" (König, 1981, p.49). Kónig-ek esaten duen bezala, ama-aita eta seme-alabek osatzen duten familia eredua da. Seme-alabak edukitzeko metodoak anitzak izan daitezke: biologikoak, adoptatuak, intseminazio bidez lortutakoak eta abar. Aldaketa handiak jasan ditu familia eredu honek azken urteetan, lehen aipaturiko aldaketa soziologikoen ondorioz. Lehen familia tradizionalaren eredua zen hau, baina ezaugarrietan aldaketa asko eman dira, adibidez, bikoteak ezkondu behar ziren, beraien arteko harremana betirako iraungo zuela adieraziz; bikoteek izaten zituzten seme- alaba kopurua oso handia izaten zen eta horiek izateko bidea biologikoa izaten zen; gizonen eta emakumeen paperak oso definituak zeuden, gizonek dirua etxera eraman behar zuten etxetik kanpo lan eginez eta emakumeak etxean geratu behar ziren etxeko lanak egiten eta seme- alabak zaintzen, etxeko gizona etxera ailegatu arte.

Gaur egungo familia nuklearrek ez dute zerikusirik orain arte azaldu dugun familia motarekin. Aipaturiko ezaugarri horiek guztiak aldatu egin dira eta horren familienganako aniztasuna areagotu du. Egungo bikoteak ez dira zertan ezkondu behar beraien maitasuna adierazteko eta familia bat sortzeko. Ezkontzen diren bikoteak erraz bereizten dira eta beste familia berriak sortzen dituzte. Seme-alabak modu ezberdinetan iristen dira (biologikoak, adoptatuak, aurreko harreman batekoak…). Familia barneko rol banaketak ere asko aldatu dira, batez ere emakumeak etxetik kanpo lan egiten dutelako eta horrek gizonaren paperean aldaketak eragin duelako, adibidez, etxeko-lanen banaketa edo seme-alaben zainketa.

2.3.2. Familia hedatu edo konplexuak

Familia barruan gune ezberdinak bereizten dira. Requenak egindako familia mota honen azalpena da "*aquellas agrupaciones domésticas que agrega, en el ámbito del hogar de residencia, a más de un núcleo familiar, cuyos miembros se hallan, por lo general emparentados"* (Requena, 1995, p.63). Familia mota hau azaltzeko adibiderik argiena honakoa da: etxerik gabeko bikote gazteek etxea konpartitzen dute gurasoekin, edo gurasoen etxean bizi dira.

2.3.3. Guraso bakarreko familiak

Guraso bakar batek eta honen seme-alabek osatzen dute familia eredu hau. Duela hamarkada batzuk familia eredu hau oso gaizki ikusita zegoen, familia tradizionalaren "estruktura" jarraitzen ez zuelako, aita eta amaren papera pertsona bakarrak betetzen baitzuen. Baina gaur egungo gizartean, egoera asko aldatu da eta gero eta anitzagoa den eredua dugu hau. Arrazoi ezberdinengatik pertsona batzuek familia aurrera ateratzeko eredu hau jarraitzearen erabakia hartzen dute; alargunak gelditu direlako, bereiztu edo dibortziatu direlako, seme-alabak bakarrik izatea erabaki dutelako, eta abar. Familia mota honetan seme-alabak izateko bideak anitzak dira, beste familia eredu batzuetan bezala, adibidez, adopzioa, inbitro bidezko ernalketa, eta abar.

2.3.4. Familia berreraikiak

Bi helduek sortzen duten nukleo familiar berria bezala ezagutzen da familia eredu hau. Hauek ezkonduak edo ezkondu gabe egon daitezke eta batek edo biek aurretik izandako harremanetatik seme- alabak ekartzen dituzte harreman berrira. Beraz, ama, aita, anaiordeak, arrebaordeak edota anaia-arreba berriek osatzen duten familia da. Familia berri hauetan, oso denbora gutxian, garrantzitsuak diren aldaketa aunitz ematen dira. Egoera berriari aurre egiteko, ezinbestekoa da egokitzeko prozesu orokorra egitea, hau da, bikotea bera bikote bezala ikustea, seme alaben ohitzea beraien ama edo aitaren bikote

berriarekiko eta alderantziz, etxe berri batean eta auzo edo herri berri batean bizitzera ohitzea, eta abar.

Kanpotik datorren pertsonak ezin du bere nukleo propioa eraiki, aurretik eraikitako familia batean sartzen baita. Horregatik, egoera berrian integratzen saiatuko da ahalik eta hobekien. Integrazio prozesu hau ez da zertan erraza izan behar eta urteak iraun ditzakeen prozesuan bilakatu daiteke. Familiako kide bakoitzak bere ohiturak izango ditu ezarrita eta horietan aldaketak egitea eta aldaketa horiek onartzea zaila izan daiteke. Horregatik, oso garrantzitsua da familiako kideen adinak kontuan hartzea erabakiak hartzerako orduan, horiek oso bortitzak izan daitezkeelako. Beraz, gurasoekiko harremana lantzea eta hauen inplikazioa beraien seme-alaben ongizatean ezinbestekoa izango da.

Egoera hau gaur egun gero eta gehiago ematen da. Bikote asko apurtzeak, beste bikote berri asko eraikitzea dakar eta askotan bikote berri horiek seme-alabak izatea oso normala da. (C. García Urtado de Mendoza, 2010)

2.3.5. Adopzio-familiak

Adopzio familietan ezaugarri ezberdinak dituzten kasuak daude. Adoptatzen duten familia mota ezberdinak daude: modu naturalean seme-alabak ezin izan dezaketen gizon eta emakume bikoteak, sexu bereko bikoteak, seme-alabak dituzten bikoteak, guraso bakarrak izan nahi duten pertsonak eta abar. Adoptatuen ezaugarriak ere anitzak dira: gurasoak galdu dituzten haurrak, adopzioan eman dituzten haurrak, beste herrialde batetik datozen haurrak, anaia-arrebak dituzten haurrak, eta abar.

Adopzioan parte hartzen dutenen motibazioa oso garrantzitsua da. Nahiz eta gurasoekiko lotura genetikoa ez egon, haurrak izateko nahia oso handia izaten da eta horrek prozesu luze batean parte hartzearen erabakia hartzen da. Prozesu horretan familiaren edo adoptatu nahi duen pertsonaren bizi baldintzak, egoera psikologikoa eta abar aztertu behar dituzte gizarte langileek.

Tramite horiek oso motelak izaten dira eta adoptatu nahi duten pertsonentzat oso momentu zailak izan daitezke.

Azkenean, izapide burokratikoak eta itxaron beharreko denbora pasa ondoren, gurasoek haurra edo haurrak etxera eramaten dituzte eta egokitzapen prozesu bat hasi behar izaten dute egoera berriari hasiera emateko eta ahalik eta hobekien bizi ahal izateko.

2.3.6. Harrera familiak

Harrera familia, adin txikiko haur bat, bere familiarengandik beharrezkoak dituen zaintzak jasotzen ez dituena, beste nukleo familiar batean integratzeaz arduratzen da. Familia berri honek, haurrak behar dituen zaintzak eta hezkuntza emateaz arduratuko da, honen bizi baldintzak hobetuz. Prozesu hauetan parte hartzen duten haurrak beraien familia biologikoekin arazoak izan dituzten haurrak izaten dira, beraien bizitzako momentu baten- batean abandonatuak, tratu txarrak jaso edo laguntza behar izaten dutenak. Harrera mota ezberdinak daude, haurren beharren araberakoak:

- Familia harrera sinplea: izaera iragankorrekoa da. Kasu hauetan haurrak bere familia biologikoarekin bueltatu edo birgizarteratu behar denaren ustea dago. Gerta daiteke ere haurraren egoeraren aurrean erabakiak hartu beha izatea eta erabaki horiek hartzen diren bitartean, haurra familia batean egon behar izatea.
- Familia harrera iraunkorra: haurraren adina edo honen beste edozein baldintzaren ondorioz eta familiaren gomendioa eta gizarte zerbitzuek ere beharrezkoa dela ikusten badute, harrera familiak haurraren tutoretza eta horrekin datozen ondorio guztiak izango du, epaileak egoera horren onarpena eman ondoren.
- Adopzio aurreko familia harrera: haurraren egoera juridikoa adoptatua izateko moduan egotean, zenbait zirkunstantziagatik adoptatua izan baino lehenago egiten den harrera da.

Familia eredu honen barruan ere, *oporretako harrerak* aipatzea garrantzitsua da. Gaur egun gero eta gehiago zabaltzen ari den gauza da. Beste herrialde batzuetako haurrak uda aldean ekartzen dituzte hemengo familiekin egotera. Ume horietako batzuk umezurztegietatik etortzen dira eta beste batzuk, berriz, baliabide gutxiko familietatik. Haur horiek behar dituzten zaintzak eta maitasuna jasotzen dute hemen egoten diren denboraldian zehar.

2.3.7. Sexu bereko pertsonez osatutako familia homoparentalak

Familia homoparentalak, bikote homosexualek eraikitzen dituzten familiak dira, hau da, gurasoak sexu berekoak diren bikoteak dira: bi emakume edo bi gizon. Duela zortzi urte (2005. urtean), homosexualen arteko ezkontza legalizatu zen eta hortik aurrera hauenganako eskubideak zabaltzen hasi ziren pixkanaka-pixkanaka. Hauenganako onarpena ematen hasi da gaur egungo gizartean, baina oso modu motelean, hala ere, aurrerapauso handiak eman direla aipatu behar da.

Familia hauetan seme-alabak egoteko bide ezberdinak daude. Gizonezkoek, adopzio edo subrogazioaren bidez izango dituzte seme- alabak. Emakumeek berriz, adopzioa, intseminazio emaile batek lagunduta, autointseminazioa lagun baten espermatozoideak erabiliz edo gizon batekin harreman sexualak izan ondorengo haurdunaldiaren bidez izango dituzte seme-alabak. Bai gizonezkoen bai emakumezkoen kasuetan, bikote homosexualak izan baino lehen, harreman heterosexualak izan eta horietan seme- alabak izanda, horiek ere familia homoparentalen parte izan eta bikote berrien seme-alabak izango dira.

Familia eredu hauetan haurren garapen psikologikoan eta emozionalean arazoak ager daitezkeela kritikatu da askotan. Hala ere, familia eredu honetan hazi diren haur horien garapena guztiz normala dela ikusi ahal izan da.

Lucía Aguado Iribarren irakasleak *Familia ereduak gaurko eskolan* dokumentuan aipatzen duen bezala, aipatzekoa da Sevillako Unibertsitatea eta Madrilgo Psikologoen Elkargoa egiten ari diren ikerketan […] ateratako

emaitzak: a) familia hauek haurraren hezkuntzarekin eta garapenarekin konprometitua daude; b) komunikazioa eta maitasun-transmisioa onak izan ohi dira; d) familia horien oinarrizko balioen artean aniztasunarekiko errespetua eta tolerantzia izaten dira; e) seme-alaben garapen sozial, akademiko eta emozionala orekatua da, eta f) gaur egun dauden eragile sozial anitzek, hots,lagunek, senideek, eskolak, telebistak, eta abarrek, patroi eta eredu ezberdinak garatzeko aukera errazten dute.

2.3.8. Ugalketa lagunduaren bidez jaiotako umeen familiak: intseminazioa, inbitro ernalketak

Seme-alabak izateko arazoak dituzten bikoteengan gero eta ohikoagoa den metodoa da hau. Metodo honetan, normalean, gurasoetako batek seme-alabak izateko ezintasunaren ondorioz, ez du seme-alabarekiko lotura genetikorik, espermatozoideak edo obuluak beste pertsona batenak izaten direlako. Emakumearen obuluak beste gizon baten espermatozoideekin elkartu egiten dituzte bere uteroan, edo bere senarraren espermatozoideak beste emakume baten obuluarekin elkartu eta emakumearen uteroan sartzen dituzte.

2.3.9. Subrogazioaren bidez sortutako familiak

Subrogazioa da emakume batek beste pertsona batentzat seme-alabaren bat izaten duenean. Hiru subrogazio mota bereizten dira:

- Partziala: eskaera egiten duen aitaren hazia eta ordezko amaren obulua erabiltzen dira.
- Osoa: prozesuan erabiliko diren bai obulua, bai hazia, eskaera egiten duten gurasoenak dira.
- Emailearen bidez: emaileren bati zor zaio obulu edo hazia.

2.3.10 Etorkinen familia aniztasuna

Gure inguruan ditugun etorkinen familia gehienak, bizimodu hobe baten bila etorri dira. Familia hauek herrialde berri batera ailegatzean, ohitura eta hizkuntza berriekin egiten dute topo eta horrek familia osoarengan du eragina. Beraien ohiturak ahalik eta gehien mantentzen saiatzen dira eta ohitura berriekin bizitzeko ere ahaleginak egiten dituzte. Hizkuntza berria izaten da aldaketarik nabarienetakoa. Herrialde berri batera ailegatzean, bertako jendearekin komunikatu beharrak hizkuntza berri hori ezagutu eta ikastera behartzen ditu.

Kasu asko ematen dira non familiako kide bakarra beste herrialde batera joan den aukera berrien bila eta horrek bere familiaren egoera aldatu egiten duen. Familiako kideen paperak aldatu egiten dira eta horrek ere egoera berrietara moldatzea eskatzen die.

2.3.11 Izatezko bikoteak

Azken urte hauetan zabaldu den egoera da, eta horrekin batera gizartean onarpen maila handiagoa lortzen joan da. Familia eredu hau, elkarrekin bizi diren ezkondu gabeko bikoteek osatzen dute. Beraien egoera legalki onartua dago baina juridikoki ezin da ezkontza bezalako loturarekin konparatu. Bikote hauek seme-alabak ere izan ditzakete, horiek lortzeko metodo ezberdinak erabiliz (biologikoki, adoptatuz…)

2.3.12 Pertsona bakarreko guneak

Eredu honetan pertsona dibortziatuak, bereiztuak, ezkongabeak eta alargunak egongo lirateke. Bakardadean bizitzea aukeratzen dute pertsona hauek, aurretik bizitako egoerarengatik berriro bikotea ez izatea erabakitzen dutelako. Egungo gizartean ematen den egoera kontuan hartuta, posiblea da bakarrik bizitzea independentzia ekonomikoagatik, pertsonen arteko harremanetarako malgutasunagatik eta sexu harremanetan eman diren aldaketengatik, beste gauza batzuen artean.

2.3.13 Seme-alabarik gabeko guneak

Gaur egun, pertsona askok erabakitzen dute seme-alabak ez izatea arrazoi ezberdinengatik: betidanik seme-alabak ez izatea erabaki dutelako; bizi baldintza egokien falta dela eta seme-alabak ez izatea erabakitzen dutelako; oso gazteak izanda seme-alabak izatea goizegi iruditzen zaielako; krisi ekonomikoa dela eta, seme- alabak izatea eta hauek modu egokian zaindu eta mantentzea ezinezkoa suertatzen zaielako; eta abar. Gaur egun, gero eta pertsona gehiagok erabakitzen dute seme- alabarik ez izatea.

2.4 Gizonaren papera gizarte garaikidean

Gizonaren papera urteak pasa ahala asko aldatzen joan da, gizartearen aldaketarekin batera. Duela 50 urte gizonak gizartean zuen irudia oso argia zen: langilea, aita fuerte eta diziplinatua, familian ez oso sartua, etxea mantentzen zuena bere diru sarrerei esker eta etxea eta familia babesten zuena. Emakumeak, berriz, pertsona ahula, etxea eta haurrak zaintzen zituena eta gizonaren menpe egon behar zuenaren papera zuen.

Azken urte hauetan gizartean eman diren aldaketek, eta bereziki genero berdintasunaren alde egin diren aurrerapenek, eragin handia suposatu dute bai gizon baita emakumeentzat ere. Emakumeak etxetik ateratzen dira, beraien ikasketa maila handitzen dituzte unibertsitateetan sartuz, gizonekin batera lan egiten dute, independizatu dira ez baitute gizonaren beharra superbizipenerako, beraien dirua irabazten dute egiten duten lanari esker, eta abar. Horrek gizonak egoera edo aldaketa berri horietara guztietara egokitzera derrigortu du, hala nola, beraien seme alabekin denbora gehiago pasa behar izatea eta horien hezkuntzan gehiago inplikatzea, etxeko lanetan modu aktiboago batean parte hartzea, bikotearekiko genero rolak aldatzea, eta abar. Meil Landwerlin (1997) esaten duen bezala "[…]la definición de los roles

domésticos de hombres y mujeres cada vez menos exótica y singular evidencia el cambio que en las pautas de división del trabajo doméstico se está registrando en las nuevas familias urbanas…”

Egungo egoera ekonomikoak ere aldaketak eragin ditu gizonaren paperean. Bikote anitzetan gertatzen da emakumea izatea dirua etxera eramaten duen bakarra (alderantziko egoera ere ematen da noski), gizonezkoen langabeziagatik. Horren ondorioz, gizonezkoa izaten da etxearen eta seme-alaben ardura artzen ari duena.

Aldaketa horiei guztiei egokitzea momentuan zaila izan zitekeen, baina aldaketa horiek oso gauza positiboak ere ekarri dituzte gizonaren paperean. Gizonezkoek orain ez dute zertan erakutsi behar pertsona bihozgabe, gogor eta ausartak direla. Pertsonak diren heinean, sentitzen dutela, akatsak izaten dituztela eta asko maitatzen eta kezkatzen direla erakutsi dezakete.

Gaur egungo gizartean genero rolen eboluzioak gero eta presentzia nabarmenagoa dauka, nahiz eta eboluzio hura motela izaten ari den.

2.5 Haur hezkuntzako didaktika

Didaktika, alor teknikoaren ikuspuntutik, irakaskuntza hobetzeko teknika eta metodo ezberdinak bilatzeaz arduratzen den pedagogiaren adarra da, ikasleei ezagutzak modu eraginkor batean ailegatzeko jarraibideak definituz.

Didaktika, hezkuntzaren printzipioak ezarri eta irakasleei edukien antolaketa eta garapena egiteko balio du. Honen helburua da irakaskuntza eredu ezberdinak eta ikaskuntza planak ordenatzea eta babestea. Irakaskuntza egoera eman dadin, zenbait elementuren presentzia beharrezkoa da, hala nola, irakaslea (irakatsi egiten duen pertsona), ikaslea (ikasi egiten duen pertsona) eta ikaskuntza testuingurua.

Historian aurrera, hezkuntzak aurrerapauso handiak eman ditu eta didaktikari erreferentzia egiten dioten eremuak modernizatu egin dira. Hasiera batean, adibidez, irakaslean eta ikasleari irakasten zitzaion edukietan oinarritzen zen ereduan lan handia egin zen (prozesu-produktu eredua), ikaslea, ikaskuntza eremua eta aukeratutako metodoa nolakoak ziren kontuan hartu gabe. Urteak pasata, jarduera handiko sistema berria jarri zen martxan, non gaitasun sortzaileak eta ulermen ahalmenak estimulatu ziren. Azken urteetan, sistema didaktikoek malgutasun handia lortu dute eta horrekin batera garrantzitsuagoak bihurtu dira hezkuntza eremuan.

Hezkuntza aldatzen joan da eta egoera eta momentu berrietara egokitu behar izan da, horregatik, eredu didaktikoak ere aldatzen joan dira. Duela hogei-hogeita hamar urte gomendagarria zena eta eskola guztietan erabiltzen zena, gaur egun ez da ez erabiltzen, ezta horren erabilpena gomendatzen ere, hezkuntzarako kaltegarria edo negatiboa kontsideratzen baita.

Hasieran, hezkuntza eredu didaktiko tradizional batetik bideratzen zen, non irakastea zen garrantzitsuena eta irakaskuntza nola ematen zen ez zuen inolako garrantzirik. Metodoak ez ziren modu sakonean aztertzen ezta irakatsi nahi ziren kontzeptuak ere edo ikaslea bakoitzaren egoera. Gaur egun, irakasterako orduan garrantzia berezia dauka ikasleen azterketa orokorra egitea eta ikasle bakoitzaren azterketa indibiduala egitea ere. Azterketa honek ikasleei hurbiltzea eta bakoitzak duen autoformazio gaitasuna ezagutzea ahalbidetuko du. Horrela, haur bakoitzak ikasitakoa, bere eguneroko bizitzan erabili edo aplikatu ahal izango duela ziurtatuko da.

Zenbait adituek didaktikaren definizioa ematen dute. Hona hemen interneten aurkitutako aditu batzuek emandako definizioak:
Aebliren ustetan didaktika:

es una ciencia que auxilia a la Pedagogía para todo lo que tiene que ver con las tareas educativas más generales […] la didáctica científica es el resultado del conocimiento de los procesos educativos en el intelecto de un individuo y las metodologías utilizadas.

Mattos-en ustez, didaktika *"consiste en una doctrina pedagógica cuya meta es definir una técnica adecuada de enseñanza y dirigir eficazmente el aprendizaje de un grupo. Posee un carácter práctico y normativo que debe ser respetado".*

Stöcker-ek baieztatzen du *"es una teoría que permite dar instrucciones en la enseñanza escolar de todos los niveles"*. Larroyorentzat, berriz, *"estudio de los procedimientos en la tarea de enseñanza"* da.
"Definición de didactica": http://definicion.de/didactica/

2.5.1. Haur hezkuntzako metodologia eta familiaren inplikazioa

Haur hezkuntzan haurrak irakasteko metodologia ezberdinen erabilpena egiten da. Azken urtetan aldaketa handiak eman dira arlo honetan eta aldaketa horiekin zerikusia izan duten eta izaten ari diren hiru aditu aztertuko ditut atal honetan. Badira beste metodo ezberdin batzuk, baina kasu honetan hiru hauetan zentratuko naiz, haurra hauen zentroa edo protagonista baita. Haurren garapenean zentratzen dira metodo hauek eta garapen hori ahalik eta hobekien ematea bilatzen dute. Txikiekin gela barruan lan egiteko modu ezberdinak proposatzen dituzte, beti ere haurren erosotasuna eta ongizatea bilatuz, haiek ikasten duten bitartean. Metodo hauetan ere eskolaren, haurraren eta familiaren harremana ematen da, eta lan honetan jorratzen ari naizen gaiarekin harreman zuzena dauka. Metodo hauetan familiaren papera ere kontuan hartzen da, haurraren garapenean garrantzia berezia duelako.

- *Loris Malaguzzi*

Loris Malaguzzi (1920-1994, Reggio Emilia, Italia) hezitzaile eta pedagogo italiarrak, Reggio Emilia proposamena egin zuen, 0-6 urte bitarteko haurren ikaskuntzari zuzendua. Honen helburu nagusia izan zen eskola aktibo, atsegin,

bizitzeko egoki eta komunikatiboa sortzea, ikaskuntza eta hausnarketa modu sakonean emateko tokia eskainiz, non familiak, haurrak eta irakasleak elkartzeko aukera izango zuten. Honen helburua izan zen haurrei kalitatezko hezkuntza eskainiko zien esperientzia eraikitzea non neska eta mutilen ahalmen edo gaitasunak entzun, errespetatu eta kontuan hartuko ziren.

Reggio Emilia haurraren indibidualtasuna, honen testuinguruaren garrantzia eta guraso eta irakasleen arteko partaidetza bere hezkuntzan nabarmentzen duen filosofia da. Gurasoen parte hartze zehatza, komunikatiboa eta haurrek egindakoaren eta izaten duten garapenaren dokumentazioa egitea bilatzen du. Parte hartze honek, haurrek beraien inguruan dituzten gauzekin interesa eta jakin mina izatean eskaintzen du. Haurrek badituzte ikasteko modu ezberdina eta Loris Malaguzzik bere eskoletan irakaskuntza metodo berria sortu zuen, haurraren ikasteko moduari egokitzeko. Malaguzzik esaten zuen bezala "*las cosas de los niños y para los niños se aprenden solo de los niños*".("La Educación Infantil en Reggio Emilia" pag.31página 28).

- *Montessori metodoa*

Maria Montessori (1870-1952, Chiaravalle, Ancona, Italia), hezitzaile eta doktorearentzat, hezkuntzaren helburua da harrek independentzia fisiko eta psikiko gorena lortzea eta beraien kabuz pentsatzen ikas dezatela. Haur txikiak behatzeari ekin zion eta helduak okertuta zeudela ondorioztatu zuen, hauek haur txikien jakin- mina eta ezagutza bereganatzeko gaitasunak eteten zituztelako, helduek beraien esperientzietatik abiatzen zirelako. Horregatik, Montessorik bere hezkuntza metodoa, haurrei beraien kabuz beraien ezagutzan lagunduko zieten testuinguru eta material egokiak eskaintzean oinarritu zuen, irakaslearen papera edo funtzioa orientatzaile bezala utziz.

Bere ustetan, haur baten lehenengo etapen garapena oinarrizkoa zen eta beharrezkoa ikusten zuen haur txikiei beharrezkoa zuten askatasuna ematea, hauek zituzten aukeren artean hautatu zezaten. Hau da, haurrek zuten jakin-

min naturala asetzen eta beraien esperientzien bidez mundua ezagutzen utzi behar zitzaien, besteengandik informazioa jaso gabe.

Montessori metodoaren gakoak honako hauek dira:

- Haurraren garapena ematen den epealdi horretan, aldi sentikorrak izeneko momentuak pasatzen ditu. Hauetan haurra motibatua eta prestatua dago gaitasun zehatz batzuk bereganatzeko (hizkuntzakoak, ukimenezkoak, motoreak…). Montessoriren ustetan, periodo edo epealdi hauek ahalik eta gehien probestu behar dira.
- Gela barruan, haurrek mugitzeko eta material pedagogiko ezberdinak eskuratu eta erabiltzeko askatasun osoa dute.
- Ikasteko erabiltzen diren material ezberdinak, haurren arreta deitzeko gaitasuna dute eta hauen erabilpena, haurren ikasteko erritmoa errespetatzeko egokituak daude. Gainera, edozein akats eginda, haurra horretaz konturatzeko prestatuta daude.
- Haurrek, momentuaren arabera ikasi nahi dutena edo egin nahi duten lana egiteko askatasun osoa dute.
- Irakaslea metodoan formakuntza izan behar du eta behatzaile eta orientatzaile funtzioak beteko ditu. Horrela, ikasleei egin eta garatu ditzaketen lanak erakutsiko die, baina haurren lanean ahalik eta gutxien parte hartzen saiatuko da.
- Gela bakoitzean, adin ezberdineko neska eta mutilak nahasten dira. Bai modu indibidualean bai talde moduan ere lan egiten da, idei ezberdinen trukea ahalbidetzeko eta gehiegizko lehiakortasuna ahalik eta gehien ekiditeko.
- Haur bakoitzak bere ikaskuntza erritmo propioa duela eta hori errespetatu behar dela kontuan hartzen du metodo honek.
- Isiltasuna eta mugimendua, hezkuntza eredu honetan oso garrantzitsuak diren elementuak dira. Haurrek beraien materialak nahi dituzten bezala mugitu ditzakete eta gehien gustatzen zaien moduan utzi, beti ere beraien erosotasuna eta ongizatea mantenduz.

Archivo histórico Portal Educativo de Medellín/Año 2009: http://www.medellin.edu.co/sites/Educativo/Directivos/Noticias/Paginas/ED29_PPM_ModeloMontessori.aspx

- *Waldorf metodoa*

XX. mendearen hasieran Rudolf Steiner (1861-1925, Donji Kraljevec, Inperio austriarra [gaur egungo Kroazia]) austriarrak burututako metodo hau, irakaskuntza bideratu, hierarkizatu eta lehiakorretik alde egiten du eta bere estrategia haurren imitazio, irudimen eta esperimentaziorako gaitasunetan oinarritzen du, hauen garapenera egokituz eta mundua ezagutzeko interesa piztuz.

Hezkuntzako Ministerioak eskatzen dituen edukiak ikasten eta lantzen badira ere, ikasleek ez dituzte liburuak erabiltzen. Bakarrik kontsultarako liburuak erabiltzen dituzte eta beraien lanak prestatu eta aurkezteko beharrezkoa duten informazioa bilatzen gai izateko prestatzen dira haurrak. Jarduera intelektual, artistiko eta praktikoak bateratzen dira, egunero ebaluatzen den ikaslearen formazio integrala lortzeko.

Garapena hiru etapatan banatzen du metodo honek: lehen haurtzaroa, erdiko haurtzaroa eta nerabezaroa. Gure kasuan, lehen haurtzaroko eta erdi haurtzaroko etapetan zentratuko dugu gure interesa. Hala ere, hona hemen hiru etapa horien azalpena:

- Lehen haurtzaroan, haurrak bere inguruan duena imitatzen du. Horregatik, haurraren gurasoek eta hezitzaileek, haurrak modu sortzailean jolasteko eta imitaziorako beharrezkoak dituen aukerak eskaintzen dituen testuingurua sorraraztearen erantzukizuna izango dute. Metodo honen arabera, gorputzaren mugimenduaren kontrola lortzeko, jarduera ludikoa ezinbesteko erreminta da.

- Erdi haurtzaroan edo lehen hezkuntzan, haurrak irudimenaren bidez ikasten du. Waldorf metodoaren arabera, haurraren inteligentzia sentikorra heztea da.

- Nerabezaroan, ikasleak oinarrizko ikasgai guztiak ikasten ditu. Horrek, ikaslearen interesak zeintzuk diren eta zeinetan den ona ikusteko aukera emango dio. Horrela, ikasleak bere zaletasun edo bokazioa zein den ikusi eta erabakitzeko laguntza emango dio.

Salabert, E. (2012):
http://www.webconsultas.com/bebes-y-ninos/educacion-infantil/el-metodo-waldorf-en-que-consiste-5452

Rodriguez Boggia, D.O. (2002):

http://www.espaciologopedico.com/articulos/articulos2.php?Id_articulo=205

2.6 Haurren garapena haur hezkuntzan

Haur guztiak ezberdinak dira eta beraien garapenean prozesu ezberdinak pasatzen dituzte. Horregatik haur bakoitzak behar ezberdinak behar izaten ditu. Behar horien arabera, gurasoen inplikazioa haurraren irakaslearekin handiagoa edo txikiagoa izan daiteke. Hona hemen haur txikien artean aurki ditzakegun ezaugarri ezberdinak:

2.6.1. Nortasuna

Haur baten izaera, bere ingurugiroaren, izaten dituen esperientzien eta tratatzen duten moduaren araberakoa izaten da. Hala ere, haurrek jaiotzearekin batera, bizitza osorako den nortasun zati bat dakarte, beste pertsonekiko tratua eta jasotzen duten hezkuntza alde batera uzten duena.

Horri tenperamentua deitzen zaio. Hortik bi ondorio atera daitezke:

1. Izaera zaila duen haur baten gurasoek ez dute pentsatu behar bere umearen jarreraren errudunak direla, gauzak gaizki egiteagatik.
2. Haur batekin baliagarria dena beste batekin ez du zertan balio izan behar. Horrela, modu ezberdinean tratatu behar izango dira.

Haurren tenperamentua definitzen duten 9 ezaugarri bereizten ditu Luciano Montero psikologoak. Hona hemen horien azalpena:

1. Jarduera maila

Oso haur aktibo edo mugitua baldin bada, mugitzeko aukera ezberdin asko eman beharko zaizkio. Haurrak bai etxe barruan baita etxetik kanpo ere espazioa behar du. Ume hauekin, ahal den heinean, geldirik egotea eskatzen duten iraupen luzeko ateraldiak ekiditen saiatu behar da. Ezin badira geldirik egon, hobe izaten da haurra egoeratik ateratzea, hau lasaitzea baino. Egoera hauetan, haurra ez da gaizki portatzen, bere izaera horrelakoa baita. Helduagoa izatean, egoera ezberdinen aurrean hobe egokituko da, baina txikiak direnean ezin dute beraien burua kontrolatu. Helduak pertsona lasaiak baldin badira, oso mugitua den haurra jasatea oso zaila izango da.

Aldiz, haurra oso lasaia baldin bada eta berarekin egoten diren helduak oso mugitu edo aktiboak badira, haurraren jarrera harritu ahal ditu eta horren mugimendu eza urduritu ahal ditu. Hala ere, hobe izaten da haurraren izaera onartu eta errespetatzea, horrek eman ditzakeen abantailak probestuz.

Haurren gehiegizko mugimendua edo gehiegizko lasaitasuna ez dira egokiak, arazoak egon daitezkeen adierazleak izan daitezkeelako.

2. Erregulartasuna

Puntu honetan, beste gauza batzuen artean, gosea, loaldia edo behar fisiologikoetan ematen diren erregulartasunari egiten zaio erreferentzia.

a. Oso erregularrak diren haurrak, egunaren antolaketa errazten diete beraien gurasoei. Horrela ere, edozein bidaia edo aldaketaren aurrean, horietara egokitzea asko kostatzen zaie.

b. Irregularrak diren haurrak, jatorduak eta loaldiak modu desegokian egiten dituzte, gurasoak konturatzen diren arte eta hauek etxean erritmo egonkorra jartzen duten arte. Haur horiei ordutegi bat ezartzea ondo datorkie; lotara joan eta otorduak beti ordu berean egiteak, bizitza aurreikus daitekeela erakusten dielako. Ume haien esfinterren kontrola lortzea gehiago kostatu ahal zaie, horregatik, tolerantzia maila altua izan behar da beraiekin.

3. Adaptazioa

Aldaketen aurrean adaptazio egokia izaten duten haurrek, bizitzako zenbait egoeren aurrean ez dituzte momentu deserosoak sentitzen. Hala ere, haur horien gurasoek jakin behar dute seme- alabek ere errutina eta egonkortasuna behar dutela.

Aldaketak gaizki jasaten dituzten haurrekin egokiena izaten da eguneroko errutinak ahalik eta zorrotzen aurrera eramatea. Egunerokotasunean aldaketa txikiak egotea saihestezina izaten denez eta aldi berean haurrentzat egokiak direnez, aldaketa horiek modu gradual batean ematea komenigarria da. Janari berriak jatorduetan sartzearen prozesuan adibidez, pixkanaka- pixkanaka eta banan-banan egitea komenigarria da. Gauza berriak probatzeko aukera errazak eta sarriak emateak, aldaketak hobe onartzeko laguntza ematen zaie.

4. Gauza berrien aurrean erreakzioa

Pertsona eta egoera berriak onartzeko erraztasuna duten haurrek, zailtasun asko ekiditeko oso lagungarriak izaten dira. Hala ere, arazo larriak izan daitezke haurrek ezezagunekiko izan dezaketen gehiegizko gizartekoitasuna edo beraiek bakarrik aldentzearen ohitura izatea.

Ezezagunekin harremanetan egoteko zailtasunak dituzten haurrak edo kikildu egiten direnak errespetatu behar dira eta ez dira nahi ez dituzten gauzak egitera behartu behar. Haurrak prestatu behar dira eta behar duten denbora ematea komenigarria da. Oso garrantzitsua da eman behar diren aldaketa eta egoera berrien inguruko informazioa ematea, horietarako prestatzen joatekoa. Helduek, diren bezala onartzen dituztela erakutsi behar diete eta gutxiago baloratzen dituztenaren sentimendua deuseztatzen saiatu behar dira.

5. Erreakzio intentsitatea

Haurrak bere emozioak adierazten dituen intentsitatea da eta honen irribarrean edo negarrean adierazten da adibidez.

Intentsitate handiko haurrengan oso garrantzitsua da ezberdintzea noiz kontsolatu behar diren beraien desesperazioa justifikatua denean eta noiz ez zaien kasurik egin behar beraien kasketak antzerkia direnean.

Lasaiagoak diren haurren kasuan, gerta daiteke beraien beharrei kasu ez egitea. Ez kexatzeak eta zaratarik ez sortzeak, beharrezkoa duten atentzioa ez ematea eragin dezake. Esaten dituzten gauzak modu zorrotzago batean esaten erakutsi behar zaie eta beraien sentimenduak adieraztean kasu egin behar zaie.

6. Arreta eta iraunkortasuna

Haur txikiek zerbaitetan arreta mantentzea denbora luzean zehar zaila da eta arreta mantentzen hori aldakorra izaten da haurren artean.

Batzuei jarduera batetik bestera pasatzea ez zaie asko kostatzen eta beste batzuei, aldiz, beraien denbora eman behar zaie, jarduera berean denbora luzean zehar egoteko gaitasuna dutelako.

a. Ezegonkorrak diren haurrek beharrezkoa izaten dute helduen presentzia jolasterako orduan, beraien inguruan hitz egiten ari direla entzutea eta abar.
b. Ekinak edo persistenteak diren haurrak, autonomia handiagoa izaten dute denbora luzea bakarrik egoteko, beti ere ondo pasatuz. Kasu hauetan egin edo ukitu behar ez duten zerbait buruan sartzen zaienean, ideia horretatik ateratzea eta beste gauza batzuekin distraitzea oso zaila izaten da.

7. Distrakzioa

Distraitzeko eta etengabeko mugimenduan egoteko gaitasuna duten haurren gurasoek, seme- alaba hiperaktioak dituztela pentsatzen dute. Hala ere, egoera horren ebaluaketa egitea zaila izaten da, haurrak hain txikiak izanda diagnostikoa egiten ez baita. Kasu horietan, seme- alabak estimulu gutxiko testuinguru lasai batean izatea komenigarria izaten da.

Entretenitzeko zailak izaten diren haurrak, burugogorrak eta oposizionistak izaten dira. Horregatik, komenigarria izaten da eman behar diren aldaketei buruz denborarekin informatzea. Haur hauek autonomoagoak izaten dira.

8. Zentzumen sentsibilitatea

Oso sentikorrak diren haurrak, edozein aldaketaren aurrean modu nabarmen batez erantzuten dute, adibidez, zapore, testura, argi, usain edo tenperatura aldaketekin. Horren ondorioz, mania gehiago izaten ohi dituzte. Hala ere, helduak egiten diren heinean, oso pertsona sentikor

eta adeitsuak izango dira. Komenigarria izaten da beharrezkoak ez diren aldaketak ez inposatzean.

Sentikortasun maila baxuagoa duten haurrek ez dituzte hainbeste buruhauste ematen. Hala ere, helduentzat zailagoa izango da haurrei zerbait gertatzen zaienean horren berri izatea.

9. Umore mota

Haur batzuen nortasunean poza da nagusi, beste batzuengan seriotasuna eta beste batzuengan haserrea. Oso erraza izaten da haurrak zein talderen parte diren:

a. Umore txarra nagusia den haurrekin, pazientzia handia izan behar dute helduek. Gurasoen lana izango da beraien seme-alabaren ezaugarria dela onartzea eta ez dela ez haurraren ez beraien errua horrelako jarrera izatea (umore txar horren arrazoia, haurrari bere egunerokotasunean gertatzen zaion zerbaiten ondorio ez bada).
b. Pozik egoten diren haurrak oso maitagarriak izaten dira, baina helduak adi egon behar dira beraien irribarreen atzean edozein ezinegon edo frustrazio egon daitezkeelako. Eremu honetan adi egotea garrantzitsua da, umore txarreko haurrak ez bezala, beraien adierazpenak ez dira hain argiak.
c. Serioak diren haurrak, maitatuak eta diren bezala baloratuak sentiarazi behar dituzte helduek. Inolako tontakeriarik egin gabe beraien seriotasunarekin maitagarriak direla sentitu behar dute.

Montero, L. *Nueve rasgos que definen la personalidad de un niño:* http://www.serpadres.es/1-2anos/educacion-y-desarrollo/rasgos-caracter-ninos-1-ano.html

2.6.2 Autoestimua

Autoestimua, haurren garapen pertsonalerako oinarrizko elementua da. Beraien autoestimu graduaren araberakoa izango da ikasteko garapena, besteekiko harreman egokiak garatzea, jarduerak egiteko gogoak izatea eta zergatik ez, beraien zoriontasunaren eraikuntza egitea. Haur batek autoestimu egokia duenean bere burua gauzak egiteko trebea ikusten du eta segurua eta preziatua sentitzen da. Ikastea garrantzitsua dela ulertzen du eta laguntza eskatu behar duenean ez du bere burua gutxietsia ikusten. Arduratsua izango da, jariakortasunez komunikatuko da eta besteekin modu egokian harremanak mantenduko ditu. Aldiz, autoestimua baxua duen haurrak ez du bere aukeretan inolako konfiantzarik izango ezta bere ingurukoetan ere. Beste pertsonen aurrean gutxietsia sentituko da eta horren ondorioz bere jarrera kritikoagoa, lotsatia eta sormen gutxikoa izango da. Horrek, zenbait kasutan, jarrera agresiboak garatzea ekar dezake eta aldi bereak haurrak bere ikaskideengandik eta familiarengandik aldentzean eragin dezake.

Zenbait adituen esanetan, autoestimu baxuak depresio, anorexia eta beste zenbait arazoetara bideratu ditzake haurra. Autoestimu altuak, berriz, pertsona batek bere gaitasunetan konfiantza izatea, besteengandik manipulatzen ez uztea, besteen beharren aurrean sentikorragoa izatea eta beste gauza batzuen artean, bere printzipio eta baloreak defendatzea eragin dezake. Zentzu horretan, gurasoen papera garrantzitsua izango da beraien seme- alaben osasun fisikoa eta osasun emozionala ondo zaintzeko.

Autoestimua, haurtzaroaren eta gaztaroaren eraikuntzan, oinarrizko atala da. Ez da eskolan ikasten den ikasgaia. Egunero garatzen joaten da, onarpen eta konfiantzazko harreman pertsonalen bidez. Haurren alde emozionala ezin da inoiz alde batera utzi ez guraso ez irakaslearen aldetik. Hauek izaten dituzten umore aldaketei eta gora- behera emozionalei kasu egin behar zaie eta adi egon behar dira guraso eta irakasleak.

Haurrak jaiotzen direnetik gazteak diren arte segurtasuna eta afektua aurkitu behar dute bai etxean baita etxetik kanpo ere, kasu honetan eskolan, horrek beraien garapen orokorrean eragina izan dezakeelako. Denboraldi horretan lortzen den guztia, haurren garapen fisiko, intelektual eta emozionalean eragina izango du eta etorkizunari begira bide bat edo bestea ematea eragin dezake.

2.6.3 Adierazpen emozionala

Haurrak txikiak direnean eta hitz egiten ez dakitenean, beraien gurasoekin harremanetan jartzeko komunikazio ez berbala erabiltzen dute. Haurrek beldurra, haserrea edo poza hilabete gutxi batzuekin garatzen dituzten emozioak dira eta denbora pasa ahala, hizkuntzaren garapenarekin batera horien konplexutasuna ematen da.

Haurrek izaten dituzten esperientzia emozionalak orokorrean, denbora asko ematen duten pertsona helduarekin harremanetan daudenean gertatzen dira. Horrela, emozio positiboak adieraziko dituzten besarkada bat jasotzean, edo emozioa negatiboak adieraziko dituzten deseroso sentitzen diren egoeretan.

Haurrak txikiak direnean, erraztasunez adierazten dituzten beraien emozio edo sentimenduak; kasketatik negarrera pasatzen dira eta hortik barre egitera. Aurrerago azalduko dut haurrek bizitzan zehar izaten dituzten komunikazio aldaketa horiek.

Haurtzaroaren azkeneko urteetan, txikiek beraien adierazpen emozionalak zabalduko dituzte, beste sentimendu batzuk agertzearekin batera, adibidez, lotsa edo erruduntasuna. Hizkuntzari esker, sentimendu horiek argi adierazteko aukera izaten dute.

Haurrak hazten diren heinean, ondorengo komunikazio gaitasunak garatzen doaz Raquel Bravo autoreak "*Bonding.es*" web orrian azaltzen duen bezala:

- 0 eta 3 hilabete bitartean: heldua begiratzen dute, irribarre egin eta ahoskatu egiten dute. Beraien superbizipenerako oinarrizko gaitasunak negarra eta zurrupatzea dira.
- 4 eta 6 hilabete bitartean: aurpegiak ezagutzen dituzte eta maitasuna, adiskidetasuna edo beldurra adierazten dute. Modu positiboan edo negatiboan erantzuten dute.
- 6 eta 9 hilabete bitartean: maitasunaren ezagutzea eta adierazpena ematen da. Pertsona ezagunen eta ezezagunen arteko desberdintasuna egiten dute eta ezezagunen aurrean urduritasuna adierazten dute. Oihuak, eta buruarekin eta besoekin egindako mugimenduak egiten dituzte.
- 10 eta 12 hilabete bitartean: pertsona hurbilen izena ulertu eta erabiltzen dute. Keinuen erabilera egiten jarraitzen dute, baina aldi berean hitzak esaten hasten dira eta hauen errepikapena egiten dute.
- 12 eta 18 hilabete bitartean: beraien lehenengo hitzak esaten dituzte eta kasketa eta ezetzaren denboraldiari hasiera ematen diote.
- 3 urte dituztenean: esaldi sinpleak erabiliz hitz egiten dute. Beraien gorputza ezagutzen hasten dira eta harreman dualak utzi eta hirugarrenekin harremanak izaten haste dira.
- 4 urte dituztenean: adin honetan "eta zergatik?" galderaren agerpena dago. Galderek hizkuntza indartzen dute eta komunikazio helburua izaten dute. Hauen bidez independentzia beharrak adierazten dituzte.
- 5 urtetik 6 urtera: haurrak erreflexiboagoak eta autokritikoagoak dira. Beraien galderak gauzen funtzionamenduari buruzkoak izaten dira. Limiteen eta autodiziplinaren garapena barneratzen hasten dira.

- 8 urtetik 9 urtera: buruz ikasteko gaitasuna garatzen dute. Sozializatzen dira eta berdinen arteko taldean indarra hartzen joaten dira.

- 13 urte: pentsamendu abstraktuaren agerpena ematen da. Momentura arte egindako ikaskuntza guztiak osatu eta finkatzen dituzte eta etorkizunean gertatuko zaizkien aldaketentzako prestatu egiten dira.

2.6.4 Garapen soziala

Haurren arteko harremana ematea oso garrantzitsua da. Haurrak txikiak direnean beraien inguruan dituzten pertsona guztiak behatzen dituzte eta haiengandik nahi gabe gauza asko ikasten dituzte. Horregatik, beraien adin bereko haurrekin harremanetan egoteak gauza berriak ikasten laguntzen die.

Bi urtetik aurrera haurrek hitz egiteko nahikoa hiztegia dute, baina oraindik ez dira gai izaten helduen munduko gauza asko ulertzeko.

Hiru urte dituztenean, beraien garapen emozionalak otzanagoak izaten uzten die, nahiz eta oraindik ere desobedientzia eta autoafirmazio momentu asko izango dituzte. Adin horretan egoera horiek naturalak dira eta bai gurasoek bai irakasleek jarrera normalak bezala ulertu behar dituzte. Haurren irudimenaren garapena ematen hasten da, gizartekoiak edo lagunkoiak bihurtzen dira eta jolasteko adiskideak behar izaten dituzte. Momentu horretan, lotsaren agerpena ere eman daiteke.

Hiru eta lau urte bitartean, haurrak gezurretan hasten dira, baina gehienetan esaten dituzten gezurrak inolako gaiztakeriarik gabe esaten dituzte. Gezur horien arrazoia izaten da txikiek ez dutela ondo bereizten errealitatea eta fantasia eta askotan nahastu egiten dute. Haurrek gezurra engainatzeko intentzioarekin egiten badute, bai irakasleak baita gurasoak ere adi egon behar

dira, jarrera horren atzean arazo bat egon daitekeelako eta hori ezkutatzeko helburua egon daitekeelako. Biraoak ere azaltzen dira garai horretan eta haurrak horiek esaten ondo pasatzen dute, nahiz eta horien esanahia eta zentzua zein den ez jakin. Egoera horietan, haurrarekin dauden helduek jarrera horiek zuzendu behar dituzte, bati ere modu natural bat erabiliz eta garrantzia handirik eman gabe.

2.6.5 Mintzairaren garapena:

Mintzaira bizitza osoan zehar garatzen joaten den gaitasuna da. 3- 6 urte bitarteko haurren gaitasuna handitzen joaten da, garai horretan hitz solteak esatetik esaldi osoak esatera pasatzen baitira.

Atal honetan, 3- 6 urte bitarteko haurren garapen fonologikoa, berbategia eta gramatikaren garapena, narraziorako gaitasuna eta garapen pragmatikoak azalduko dira.

2.6.5.1. Garapen fonologikoa:

4- 5 urte bitarteko haurrek, zenbait hitzen ahoskera egiteko zailtasunak izaten dituzte. Zailtasun horiek prozesu fonologikoaren barnean kokatzen dira eta hauek 3 motatakoak izan daitezke:

- Estruktura silabikoaren erredukzioa: “ tete ” → “ txupete ”
- Asimilazio prozesua: soinuen segmentazioa, adb.
  “ liblo ”→ “ libro ”
- Ordezkapen prozesua: fonema bat beste batengatik ordezkatzea, adb. “ borro ” → “ gorro ”

Hizkuntzaren arabera fonemen barneratze ezberdina ematen da. Gaztelania eredutzat hartuta, 3 urteko haurren % 90ak m / n / ñ / p / t / k / b / l / j / g fonemak ondo ahoskatzen ditu eta ai / ei diptongoak ere ondo ahoskatzen dituzte. Baina beste zenbait diptongo eta hitz

ahoskatzerako orduan, arazoak izaten dituzte, hala nola, eo /ie , “ cl ”/ “cr ” eta “d” bokalen artean gaizki ahoskatzea.

4- 5 urterekin aurrerapenak ikusten dira haurrengan, adibidez, “d” bokalen artean ondo ahoskatzen dute eta “ g ” ere. “ Ch ” ondo ahoskatzen dute baina oraindik “ R ” gogorra ahoskatzeko zailtasunak izaten dituzte.

6 urterekin hizkuntzaren edozein soinu ongi ahoskatzen dute. Arazoak sortu daitezke hitz oso luze eta konplexuak esan behar dituztenean. 6- 7 urteekin ahoskera eta gaitasun fonologikoak asko hobetzen dira eta honek irakurmenean eta idazmenean laguntzen dute. Prozesu hau guztia horrela ematen da, haurraren garapena normala baldin bada.

2.6.5.2 Berbategia eta gramatikaren garapena:

Haurren bizitzaren lehenengo urtean hiztegia pixkanaka- pixkanaka handitzen joaten da eta lehen haurtzaroan berbategiaren hazkuntza azkarra ematen da. Haurren garapen kognitiboa eta interakzionatzeko gaitasuna familiari esker eta harreman estua izaten duten pertsonei esker ematen joaten da eta aldi berean, haur txikiek beraien hiztegia handitzen joaten dira, hitz berrian sorkuntza laguntzen baitute. Hala ere, lexikoaren hazkuntza ez da bakarrik hiztegiaren handitzearekin ematen, hiztegiaren ordenak eta hitzen erabilerak garrantzi handia baitute.

Lehen hezkuntzan lexikoaren garapenean aldaketa kuantitatiboak eta kualitatiboak ematen dira eta garrantzitsua da horiek kontuan hartzea. Hau da, haurrek ikasten dituzten hitz kopurua kontrolatzea garrantzitsua da, baina hitz horiek nola egiten dituzten kontrolatzean ere garrantzitsua da. Templin (1957) adituaren arabera, 6 urteko haur baten hiztegia 14.000 hitzen ingurukoa da, eta Carey (1978) adituaren arabera, haurrek 18 hilabete eta 6 urte bitartean, egunero 9 hitz ikasten dituzte.

Prozesu gramatikalaren ikaskuntza konplexua da haur txikientzat. Honen hasiera goiztiarra da, baina iraupen luzekoa, nerabezarora arte irauten baitu.

3- 6 urte bitartean ikaskuntza gramatikalaren prozesua aktiboa da. 4 urteekin oinarrizko gramatika barneratua izaten dute haurrek esaldiak egiteko gaitasuna lortua dutelako, baina oraindik ikasteko asko geratzen zaie.

Normala izaten da 4- 5 urte dituzten haurren artean, beste batek zerbait kontatzen duen bitartean haiek ere hitz egitea, gauzak errepikatuz edo esandakoa beste estruktura batean esanez. Prozesu horiek zailtasunen adierazleak dira, narrazio bat aurrera eramateko zailtasunak daudela adierazten baitute.

3. GARAPENA ETA GURASOEN PARTE HARTZEA ESKOLAN

Lan honetan, gaiarekin zerikusia handia edo zuzena duten bi hitz garrantzitsu aipatu behar ditut: parte hartzea eta inplikazioa. Hauen arteko desberdintasuna egitea zaila izan daiteke eta lanean nahastu daitezkeela ere iruditu daiteke. Horregatik, bi hitz horien definizioa ematea garrantzitsua dela ikusten dut.

Parte hartzea, beste pertsona batzuekin batera gertaera edo jarduera ezberdinetan interbenitzea da. Adibidez, eskola barruan guraso batzuek ipuin bat kontatzera joatean, gela horretan parte hartzen ari dira.

The free dictionary: http://es.thefreedictionary.com/participar

Inplikazioa, pertsona bat zerbaitekin edo norbaitekin konprometitu edo inbolukratzea da. Adibidez, gurasoak beraien seme-alaben hezkuntzarekin konprometitzean, beraientzat aproposak diren baloreak transmitituko diete.

The free dictionary: http://es.thefreedictionary.com/implicar

3.1. Eskolan haur hezkuntzan proiektuen bidez lan egitea eta gurasoen parte hartzea

Gaur egun, zenbait eskoletan irakasle batzuk proiektuen bidez lan egiten hasi dira. Proiektu hauek kasualitatez emandako edozein gertaeretatik, irakasle batek eragindako esperientzietatik, haurrek izaten dituzten ideietatik, arazoetatik, gelan eragina izan duen gertaerengatik, txango batetik, ekimen batetik, eta abarretatik sortzen dira. Hauek ez dute aurretik ezarritako irupen zehatza, egun batzuk, bizpahiru aste edota bi hilabeteko iraupena izan dezaketelako.

Proiektuen bidez lan egiteak, ikaskuntza tradizionalak eskaintzen ez dituen aukera asko ematen die bai irakasleei baita ikasleei ere. Horrela lan egitean, haurrek ikertzen eta esperimentatzen ikasten dute eta beraien interesetan oinarritzen dira.

Hala ere, modu honetan egokiro lan egiteko, irakaslearen inplikazio osoa eta hein batean gurasoen parte hartzea guztiz beharrezkoak dira. Elaborazio, material eta baliabide prestaketa eta ebaluazio lanak egitea beharrezkoak dira, beraz, irakasleak lan handia egin behar izango du proiektuak aurrera doazen heinean, lan metodo hau aurretik prestatzen ez delako. Hau da, irakasleak ez dakienez proiektu bakoitzean zer eta nola aterako den, aurretiko material eta baliabideen prestaketa eta ebaluazioa prestatzea ezinezkoa da. Lana egiten den aldi berean aipaturiko gauza horien antolaketa egin behar du.

Haur hezkuntzan lan egiteko proiektuak erabiltzeak, globalizazioa ematea ahalbidetzen du, etapa honetan berebiziko garrantzia duena. Oinarri bat erabiliz, eremu curricular guztiak landu daitezke, haurrek ikasten dutenarekin disfrutatzen duten bitartean. Ikasleak ikusten ari direnarekin hain murgilduta daude, ez direla kontziente izaten barneratzen ari dituzten ideia eta kontzeptu guztiez. Gainera, gelan modu honetan jarduteak, haur bakoitzak bere erritmoa jarraitzea ahalbidetzen du, inolako presiorik gabe. Lan egiteko metodo honek, harreman sozialak sustatzen laguntzen du, errespetu eta kooperazio baloreak eta bizikidetza arauak kontuan hartuz. Proiektuek, talde txikietan lan egiteko aukera ematen die, modu honetan lanak eta ideiak antolatzen eta ardurak banatzen ikasiko dute.

Haur txikiei ikertzea asko gustatzen zaie, beraien inguruan dituzten gauza guztien inguruko informazioa jasotzean disfrutatu eta gozatzen dutelako. Proiektuen bidezko ikaskuntza metodoarekin haurrak motibatzen dira eta gehiago jakiteko jakin-mina izaten dute.

Proiektu mota ezberdinak daude, gelan aukeratzen den gaiaren arabera. Badaude pertsonalak diren proiektuak, “Asteko protagonistaren” proiektua bezala, edo gauza orokorren inguruan egiten diren proiektuak. Hona hemen aipatutako bi proiektu hauek nola egiten direnaren azalpena.

3.1.1 *Gai orokorren inguruko proiektuak*

Lan egiteko metodo honek gai ezberdin eta anitzak jorratzeko aukera ematen du, beti ere haurren nahia eta gustuak errespetatuz eta jarraituz, hau da, haurren interesetatik baliatuz. Proiektuka lan egiteko irakaslearen lan egiteko gogoak nahitaezkoak dira, lehen aipatu bezala, lan handia eskatzen duen metodoa baita. Hiru fase bereizten dira lan prozesu honetan:

1. Fasea: Proiektuaren hasiera

   Lehengo fase honetan, haurrek aztertu eta landu nahi duten gaia aukeratu behar dute. Horretarako irakasleak laguntza emango die ikasleei galderak eginez beraien gustuei buruz. Interesgarria izaten da momentuan gertatzen ari den zerbaiten inguruan aritzea edota duela gutxi haurrek ikusi duten zerbait bereziaren inguruan aritzea.

   Behin gaia aukeratuta, haurrek horren inguruan dakiten guztia esango dute eta irakasleak ideia guztiak apuntatuko ditu paper batean, honen izenburua izanda "*Zer dakit nik gai honen inguruan*?".

   Gero, ikasleek gai horren inguruan jakin nahi dutena esango dute eta galderak egiten irakasleak zerrenda bat prestatuko du. Haurrek galdera horien erantzun posibleak esango dituzte eta irakasleak horiek apuntatuko ditu proiektu amaieran konparaketa egin ahal izateko.

2. Fasea: Gaiaren inguruko informazio bilketa

   Bigarren fase honetan, irakasleak haurrak informazioa jasotzeko plangintza eta jarduera posibleak adostuko dituzte: irteera posibleak, adituekin hitz egiteko aukera, eta abar. Honen helburua izango da haurrek egindako galderei erantzuna ematen saiatzea.

   Irakaslearen laguntzaz gain, haurrek beraien gurasoen laguntza ere beharko dute. Etxean gurasoekin batera bai interneten baita liburuetan ere gaiaren inguruko informazioa bilatuko dute eta aurkitutakoa gelara eramango dute ikaskideei azaltzeko. Irakasleak haurrak tentatuko ditu entzuten duten informazioaren inguruan

galderak egitera eta horien inguruko azalpenak (komentarioak) egitera.

Haurrak guraso eta irakaslearen laguntzarekin ikertzen doazen heinean, marrazkiak, argazkiak, "idatziak", eta abar egin ditzakete. Horrekin, gauza berriak ikastean aurretik ikusitakoarekin konparaketak egin ditzakete eta ondorio ezberdinak ateratzen joan.

3. Fasea: Proiektuaren ondorioak

Hirugarren eta azken fase honetan, haurrek aurkitu dituzten erantzunak aztertu eta eztabaidatuko dituzte. Irakasleak, hasieran haurrek zekizkiten ideiak berriro aipatu eta lan egin ondoren lortutako erantzunekin konparaketa egitea eskatuko die haurrei, beti ere, guztion arteko eztabaidaren bidez.

Lan hori guztia egin ondoren, haurrek nahi dituzten pertsonei ikasitakoa aurkezteko aukera izango dute: lagunak, familia, ikaskideak, ikastetxeko beste ikasle eta irakasleak, eta abar.

3.1.2. *Proiektu pertsonalak*

Proiektu mota hau azaltzeko, "Asteko Protagonistaren" proiektuan oinarrituko naiz. 3 urteko haurren geletan egiten den lana da hau. Haurrak eskolan hasi berriak dira eta elkarri ezagutzen ari dira. Beraien arteko ezaguera interesgarria eta politagoa egiteko oso baliagarria den metodoa dugu hau.

Irakasleak haurren zerrenda hartu eta ikasle bakoitzari ikasturteko aste bat egokituko dio. Horrela, ikasle bakoitzari dagokion aste horretan, asteko protagonista izango da. Haurrek jarduera bereziak egingo dituzte beraien astean:

- Kutxa: haurrek kutxa berezia eramango dute gelara eta bertan beraien gustuko gauzak eta gauza pertsonalak sartuko dituzten. Bertan gustuko jolasak, puzzleak, ipuinak, instrumentuak, bideoak, familiaren argazkiak, gustukoen duten arropa edo zapatilak, txikiak zireneko arropa, eta abar sartuko dute. Astelehenean bertan, haur bakoitzak bere kutxaren aurkezpena egingo die ikaskide guztiei eta kutxako gauza guztiak banan-

banan ateratzen joango da. Horrela haurrak gauza guztiak zer diren azaldu eta bere hizkuntza landuko du. Behin kutxaren aurkezpena eginda, gauza guztiak berriro barruan gorde eta ikaskide guztiek bertan dauden objektu guztiekin astean zehar jolasteko aukera izango dute, kutxa gelako mahai berezi batean egongo baita.

- Izena: haurrek beraien izena hiru modu ezberdinetan paper batean jarriko dute. Lehenengoan, beraien izena karratu batean idatzita egongo da eta beraiek bakarrik itsatsi beharko dute orriaren goiko aldean. Bigarrengoan, izenaren letrak izango dituzte eta ordenatu ondoren aurreko pausuan jarritako izenaren azpian itsatsi beharko dituzte. Hirugarren eta azkeneko modua idatziz izango da. Jarduera honekin haurrek beraien izena eta grafiaren lanketa egingo dute.

- Ikaskideak: ikasleak bere ikaskide guztien argazkiak paper batean itsatsiko ditu, nahi duen moduan eta ordenan.

- Estanpazioa: protagonista den haurrak bere gustuko kolorea aukeratuko du eta irakasleari esango dio. Irakasleak plater batean kolore horretako margoa bota eta haurrak bertan eskuak sartuko ditu. Behin eskuak margo nahikoa dutela, paperaren gainean jarri eta bere eskuen estanpazioa egingo du.

- “Nola ikusten naute lagunek?”: lan hau egin baino lehen, irakasleak asteko protagonista gelakideen aurrean zutik jarri eta guztion artean deskribatuko dute: hile motza edo luzea, betaurrekoak, begia, ahoa, sudurra, besoak, hankak, eta abar. Gero haurrak mahai inguruan eseri eta asteko protagonista marraztuko dute. Azkenean irakasleak marrazki guztiak bildu eta protagonistaren jardueren artean sartuko ditu gero etxera eramateko.

- Nire lagunen muxuak: irakasleak haurrei ezpainak margotuko dizkie eta paper batean muxu ematea eskatuko die. Muxu bakoitzaren ondoan haur bakoitzaren izena idatziko du, eta muxu horiek guztiak asteko protagonistari emango dizkio bere etxera lagunen muxuak eraman ditzan.

- Gurasoen bisita gelara: haurrentzat jarduera garrantzitsuenetarikoa izaten da hau. Protagonistaren gurasoak edo familiak egun bat aukeratuko du gelara joateko. Egun horretan, haurrak bere senideak aurkeztuko ditu eta beraiek aukeratutako zerbait egingo dute, beti ere euskaraz. Eskulanak, ipuin kontaketak, jolasak, antzerkiak, gurasoen lanbideen azalpenak eta horiekin zerikusia duten ekintzak, eta abar egiten ohi dute. Egun oso berezia da bai ikasle bai familiarentzat. Ikasleek familia eskola eremuan sartuta daudela ikusten dute eta familiak bere haurraren gelako giroa nolakoa den ikusteko aukera eta ikaskidea nolakoak diren ezagutzeko aukera du.

  Jarduera hauek guztiak astean zehar egingo dira irakasleak erabakitzen duen ordenaren arabera, eta haur guztiekin egin behar dituen jardueren arabera. Aste bukaeran irakasleak egindako jarduera guztiak bildu eta koadernotxo bat bezala haurrari entregatzen dio bere etxera eraman dezan.

Bosch, I.; Camps, S.; Gomila, M.C.; Pons, C.; Alonso, M. J.; Pons, F. (2012)

Atal honen hasieran aipatu bezala, gurasoen parte hartzea oso garrantzitsua eta beharrezkoa izaten da. Egia da haurrek beraien ezagutzak eraikitzen joaten direla lan ezberdinak egiten dituzten bitartean, baina gurasoen paperak garapen horretan lekua ere badauka.

Haurrek gai ezberdinen inguruan informazioa jaso behar dutenean interneten, liburuetan, aldizkerietan eta abar, gurasoen laguntza behar izaten dute horietan azaltzen dena ulertzeko eta gero gelakideei modu egokian azaltzeko;

argazkiak ateratzean ere gurasoen laguntza behar izaten dute, gehienetan behintzat.

Pentsa dezakegu ekintza horiek tontakeriak direla edo garrantzia handirik ez dutela. Baina haurrek beraien aita edo ama beraiekin batera lanean ari direla ikustea, asko motibatzen dira eta gurasoekiko harremana indartzen da. Horregatik etxeetan lan hau egiteak oso gauza positiboak ekar ditzake.

Gurasoen hezkuntza-estiloaren* arabera, parte hartze hori handiagoa edo txikiagoa izango da. Horrek haurraren garapenean eta motibazioan eragin zuzena izango du laguntza jasotzen ez duten haurrengan, bere inguruko lagunek edo ikaskideek laguntza dutela eta ekarpen asko egiten dituztela ikusiko dutelako eta beraien kasuan laguntza eskasa eta ekarpen gutxi egingo dituztelako. Lan egiteko modu honetan arrisku faktorea izan daiteke hori. Horregatik hainbeste errepikatzen da gurasoen edo familiaren eta eskolaren arteko harremana eta elkarlana mantentzea eta garatzen joatea oso garrantzitsua dela.

3.2. Hezkuntzaren estiloak familiaren arabera eta hauen inplikazioa

Haur guztien hezkuntzan eragina handiena duten pertsonak gurasoak dira. Hauek beraien seme- alaben hezkuntzari dagokionez, arau batzuk ezartzen dituzte eta horiek seme- alaben arabera aldatzen joaten dira. Hasieran, arau horien ezartzea gurasoen esperientzia propioaren araberakoa izaten da eta hauen haurren izaeraren arabera, arau horietan aldaketak egiten joaten dira. Gurasoek ezartzen dituzten arau horiek izaten dira haurrentzako hezkuntza estiloa zehazten dutenak.

*Aurrerago azalduko ditut zeintzuk diren hezkuntza estilo ezberdinak

Hezkuntza estiloa definitu ahal izateko, bi dimentsio izaten oi dira kontuan: gurasoek umeengan ezartzen duten kontrola eta gurasoek umeengan proportzionatzen duten afektua. Bi dimentsio hauen konbinazioaren arabera lau hezkuntza estilo ezberdin bereiz daitezke(Quintana, J. M. (1993)):

3.2.1. Estilo demokratikoa

Guraso hauek beraien seme- alabengan kontrol eta afektu maila altua aukeratzen dute. Ingurune afektibo eta komunikatibo egokia proportzionatzen dute, maitasuna adierazten dute, adierazpen emozional altuko gunea sortzen dute eta seme- alabek egiten dutenarekiko oso adi egoten dira. Haurrekiko ardura handia adierazten dute eta berauen seme-alaben jarrera egokia denean horren indartzea egiten dute hauen motibazioa bultzatuz eta jarrera egoki horien errepikatzea eraginez.

Guraso hauek arauak ezartzen dituzte eta arazoak agertzen direnean, elkarrizketaren bitartez, haurrek etxean ezarrita dituzten arauak bete dezaten ahalegintzen dira, zigor fisikoa eta inposizioa ekidinez.

Estilo honetako gurasoek, beraien seme-alaben hezkuntzarekin oso konprometituak sentitzen dira, baina aldi berean haurren autonomiaren garapena indartzeaz arduratzen dira. Familia hauetan hezten diren umeak beraien buruarekiko balorazio egokia dute, independenteak dira eta ikastetxean emaitza onak izaten dituzte normalean.

3.2.2. Estilo autoritarioa:

Guraso hauek beraien seme- alabengan kontrol maila baxua eta afektu gutxi izaten dute. Guraso oso zorrotzak dira eta ezarritako arauen betetzeari garrantzia handia ematen diote. Ezartzen dituzten arauak

aldaezinak izaten dira eta zigorraren erabilera egiten da horiek betetzen ez direnean. Haurren eta gurasoen artean ez da komunikazio egokia bermatzen, harremana hotza izaten da eta ingurugiro afektibo egokia ez da sortzen. Umeen erantzuna ez da ona estilo honen aurrean eta jarrera arazoak, agresibitatea eta frustrazioa azaltzen dute. Horren ondorioz, haur heldugabeak, menpekoak eta dudatsuak izaten dira. Hori dela eta, kritikatzeko gaitasuna ez dute ongi garatzen.

3.2.3. Estilo permisiboa

Guraso hauek beraien seme- alabengan kontrol maila baxua eta afektu maila altua izaten dute. Familia estilo hauek ez dituzte arauak ezartzen, beraz, seme- alabenganako exijentzia maila oso baxua da eta umeek erabakiak hartzeko aukera izaten dute oso txikitatik. Gurasoek afektu maila altua adierazten dutenez, maitasun harremana ezartzen dute, komunikazio bide egokiak sustatzen dituzte eta laguntza emozionala ematen dute. Estilo honetan hezi diren haurrak oldartsuak edo inpultsiboak eta heldutasunik gabekoak izaten dira.

3.2.4. Estilo indiferentea

Guraso hauek beraien seme-alabenganako kontrol eta afektu maila eskasa izaten dute. Familia estilo hauek ez dute laguntza emozionala ematen, ez dute ingurune afektibo egokia sortzen eta etxean ez dituzte arauak edo limiteak ezartzen. Guraso hauek ez dira beraien haurren heziketan inplikatzen eta ez dira horretan saiatzen ere. Haurrek ez dituzte harreman egokiak garatzen eta estimulazio kognitibo egokiak ez zaizkie ematen. Haur hauen ez dute normalean garapen egokia izaten, beste pertsonekin interakzioak ezarri eta mantentzeko zailtasunak izaten baitituzten. Heldutasunik gabeko haurrak izaten dira, ezegonkorrak eta oso zorrotzak beraien eskakizunekiko. Kontrola mantentzeko eta arauak betetzeko zailtasun handiak izaten dituzte, alderdi horiek beraien etxean ikusi ez dituztelako.

Hona hemen lau estilo hauek biltzen dituzten ezaugarri orokorren taula:

	Autoritarioa	Permisiboa	Demokratikoa	Indiferentea
Afektua		✓	✓	
Kontrola	✓		✓	
Zorroztasun altua	✓			
Autoestimu altua			✓	
Inpultsibitatea		✓		✓
Heldutasun eza	✓	✓		✓
Eskola errendimenduona			✓	
Autonomia			✓	
Dependentzia	✓			
Kritikatzeko gaitasun altua			✓	
Konpromezu gutxi				✓
Autoestimu baxua	✓	✓		✓
Zigorraren erabilera	✓			
Iritziari garrantzia eman			✓	
Desobedientzia				✓
Inposaketaren deuseztapena			✓	
Agresibitatea	✓			✓
Arazoak giza harremanetan	✓			✓

***Irudia: Oinarri psikologikoak* ikasgaian(2.seihilekoan) egindako jarduera**

Goiko taula honetan, estilo autoritario, permisibo, demokratiko eta indiferentearen ezaugarriak biltzen dira. Argi ikus daiteke haurren hezkuntzarako positiboak diren ezaugarri guztiak bakarrik estilo demokratikoan azaltzen direla, adibidez, afektua,

kontrola, autoestimu altua, autonomia, kritikatzeko gaitasuna, inposaketaren deuseztapena, eta abar.

Estilo autoritarioan berriz, haurrentzat eskakizuna eta exijentzia handiko ezaugarriak ikusten ditugu, adibidez, kontrola, zorroztasun altua edo zigorraren erabilera. Aldi berean, haurrengan eragin txarra edo ez oso ona duten ondorioak ere ikus ditzakegu, hala nola, heldutasun heza, heldu edo beste pertsonekiko dependentzia izatea, autoestimu baxua, agresibitatearen azalpena eta beste pertsonekin harremanetan jartzeko edo harremanak mantentzeko arazoak. Gauza horiek guztiak haurren garapenean eragin zuzena dute eta etorkizunean horrela hezi duten pertsonarengan arazoak eragin ditzake.

Estilo permisiboak eta indiferenteak ere ez dute eragin oso ona izaten haurrengan. Lehenengoak maitasun handia ematen dio haurrari, baina arau ezak eta gurasoak bigunegiak izateak, haurren inpultsibitatea eta heldutasun eza eragiten dute. Estilo indiferentearen barruan haurrak hezten dituzten gurasoek, beraien seme-alabenganako konpromisoa oso baxua edo nulua dute. Horrek haurrak inpultsiboak, heldutasun gutxikoak, autoestimu baxukoak, oso desobeditzaileak esan edo ematen zaizkien arauekiko, pertsona agresiboak izaten dira eta horren ondorioz, beste pertsonekin harremanak mantentzeko zailtasun handiak izaten dituzte.

3.3 Gurasoak eta inplikazioa

Hemen ikusi ditugun lau hezkuntza estiloak oso ezberdinak dira beraien artean. Hauek dituzten ezaugarriak ikusita, haur txikiak ere beraien artean ezberdinak izatea eta hauek horietako hezkuntza estiloak jarraituz hezten dituztelako.

Egia da pertsona askok pentsa dezaketela autoritarioa dela hezkuntza estilo egokiena edo permisiboa dela egokiena. Puntu honetan, lau estilo hauen arteko konparaketa egingo dut eta horrekin batera gurasoengan estilo bakoitzak dituen ondorioak azaltzen saiatuko naiz. Horretaz gain, haurren arteko ezberdinak azaltzen ere saiatuko naiz.

Testuinguru demokratikoak hazten diren haurrak, heziketa “demokratikoa” jasotzean, autokontrola eta gauzekiko motibazioa izatea lortzen dute. Jarduera ezberdinen aurrean iniziatiba erakusten dute beraiengan duten konfiantzagatik eta autoestimu altuagatik. Oso haur alai eta naturalak izaten dira eta aldi berean oso pertsona leial eta arduratsuak izaten dira beraien eginbehar pertsonalekin, lorpenak erdietsi edo burutzeko motibazio handia izaten baitute. Beste pertsona batzuekin harremanetan jartzeko ez dute arazorik izaten eta guraso eta seme- alaben arteko harremana oso ona izaten da, beraien arteko gatazkak oso gutxitan emanez.

Gauza horiek guztiak gurasoek eragiten dituzte beraien haurrak hezteko modua aukeratzean. Haurrei maitasuna ematea oso garrantzitsua da, horrek baloratuak sentiarazten dituelako eta beraien egoera pertsonalarentzat lagungarria delako. Hala ere, etorkizunari begira balore egoki batzuk transmititzea eta horretarako arau batzuk ezartzea ezinbestekoa izango da. Heziketa mota hau jasotzen duten haurrek eskolan izango duten garapena orokorrean ona izango da, etxeko giroak eskolan ondo funtzionatzeak eragingo duelako. Gurasoen inplikazioa gelan handia izango da. Irakasleak gelan sartzeko proposatuko dien jarduera guztietan, ahal izango duten gehienetan parte hartzen saiatuko dira eta irakasleak ez ditu konbentzitu behar izango hauen parte hartzea eman dadin. Gainera oso modu egokian eta onean arituko dira gela barruan eta haurrekin etengabe interakzioan egoten saiatuko dira. Horrek beraien seme-alabak gustura eta harro egotea eragingo du. Irakasleak prestatutako bileretara joango dira. Bertan emandako informazioa jaso eta horren arabera beraien haurrengana zuzendutako neurriak hartuko dituzte, horren beharra dagoela irakaslearekin batera ikusten edo adosten badute. Neurriak hartu behar izatekotan, seme- alabekin modu lasaian hitz egin eta zigorra erabili gabe informazioa transmitituko diete. Bileretan hitz egindakoa haurrei transmitituko diete, zuzendu beharrekoak zuzentzeko eta gauza positiboak azpimarratzeko, beti ere, haurren motibazioa bilatuz.

Testuinguru autoritarioan hazten diren haurrak oso autonomia gutxi izango dute eta beraienganako konfiantza oso baxua izango da. Agresibitate eta

inpultsibitate maila handiko haurrak izango dira eta horrek, lehen aipatu bezala, beste pertsonekin harremanak izateko zailtasunak ekarriko dizkie. Haur hauek ez dira oso alaiak izango eta ez dira oso espontaneoak azalduko. Gauza hauetan guztietan gurasoen eragina dagoela esan daiteke, hauen hezteko moduak haurren izaeran eragina izaten dutelako. Hauen inplikazioa gela barruan emango da. Irakasleak gela barruan gurasoekin egiteko jarduerak proposatzean, parte hartuko dute baina beste haurrekiko harremana edo interakzioa zaila izan daiteke, hotza. Beraien seme-alabak ez dira harrituko, ezaguna duten jarrera ikusiko dutelako, baina beste guraso batzuen bisitekin konparaketak egin ditzakete eta gurasoen arteko aldeak ikusi. Irakasleak prestatutako bileretara joango dira eta bertan esandakoa jaso eta asimilatu ondoren, informazioaren edukiaren arabera jokatuko dute. Hau da, bestan ematen zaien informazioa beraien seme- alabaren inguruan positiboa baldin bada, harro sentituko dira, baina haurren eginbeharra bezala ikusiko dute eta ez dute beraien haurra animatuko horrela jarrai dezan, baizik eta gehiago eskatuko diote. Aldiz, bileran jasotako informazioa ez oso positiboa edo negatiboa baldin bada, ondorio moduan zigorra ezarriko dute eta horrek haurraren motibazio eza eragingo du. Gurasoek ez dute haurrarekin hitz egingo, ez da elkarrizketarik egongo beraien artean, eta helduak izango dira aginduak emango dituztenak eta beti azkeneko hitza izango dutenak.

Testuinguru permisiboan hazten diren haurren gurasoek, haurren beharrak erantzuten dituzte, baina hauen jarreren aurrean ez dituzte inolako limiterik jartzen eta ez dute autoritatearen irudia ematen. Beraien seme-alabei arauak jartzen dizkiete, baina horiek bete behar direnean malgutasun handiz aldatzen dituzte, beraz, haurrek nahi dutena egiteko aukera dutela ikusten dute gurasoek dituzten jarrera horietan. Gainera, horrelako hezkuntza jasotzen duten haurrek nahi dutena lortzera ohituta daude eta gurasoak horren errudunak dira, haurrek nahi dutena ematen edo uzten dietelako. Gurasoen hezteko modu honek, haurrenganako ondorioak dituzte. Ume hauek, beste haurrekin harremanak izateko arazoak izaten dituzte, beti beraiek gura dutena inposatzen dutelako. Autokontrol gutxiko haurrak izaten dira eta gauzekiko

motibazio gutxi erakusten dute. Gurasoen “portaeraren” ondorioz, ezarritako arauak ez dituzte errespetatzen eta inguruan dituzten pertsonak ere ez dituzte errespetatzen. Beraienganako segurtasuna oso-oso baxua da eta horrek autoestimua baxua izatea eragiten du. Beraien buruarekiko duten kontzeptua oso negatiboa izaten da eta autokonfiantza gutxiko neska- mutilak izaten dira. Eskolan ez dituzte emaitza oso onak ateratzen eta horrek frustrazioa eragiten die. Ezegonkortasun emozional handiko haurrak izaten dira. Gauza hauek guztiek, lehen aipatu bezala, gurasoek beraien hezkuntza metodoarekin lortutako emaitzak izaten dira. Guraso hauek beraien seme- alaben gelan inplikatuko dira. Irakasleak gela barruan jarduerak egitera gonbidatzean, parte hartuko dute baina beraien gehiegizko malgutasuna edo pasibidadea agerian geratuko da. Umeen irakasleak prestatutako bileretara joango dira eta irakasleak emandako informazioa jasoko dute. Ez dituzte ekarpen handirik egingo eta ez dute irakaslea asko informatuko beraien haurraren inguruan. Bertan hitz egindakoa ez diote seme- alabari komentatuko eta gauzak momentura arte funtzionatu diren bezala funtzionatzen jarraituko dute. Hau da, irakasleak beraiei emandako gomendioak beraien umearen inguruan entzungo dituzte, baina horiek praktikara eramaterako orduan ez dute kasurik egingo. Horren ondorioz, haurraren jarrera oso egokia ez bazen, berdin izaten jarraituko du eta ez da aldaketarik emango.

